

# ...eta! Kitto!

2017-11-17

1.004 zkia.

*ikasempresa*  
**klaseko enpresen**  
*erakustokua*

**EUKi**  
ASEGURUAK

**AURREZTU ZURE ASEGURUAN  
GALDETU GURE ESKAINTZARI BURUZ!**



**AUTO ASEGURUA**  
MOTORRA EDO FURGONETA  
... BAITA QUAD-A,  
AUTOKARABANA, KAMIOIA,  
BURU TRAKTOREA,  
AUTOBUSA, ATOIAK...

**AUTO  
ASEGURU  
ESKAITZA**



# gremioen gida



943-206776



## ANTENAK

### BALATZ

Instalakuntzak eta konponketak antenak

Bidebarrieta, 37  
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08  
Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa. 943 12 73 50  
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

943 530 356  
688 674 242  
669 934 964

### electricidad iparelek s.l.

INSTALAZIOAK ETA  
MANTENIMENDUA

iparelek@gmail.com iparelek@iparelek.com



TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

610 532 922

## IGELTSEROAK



Eraikuntza  
Erreformak  
Igeltseritza

Zure etxea, bulegoa, tailerra...  
aldatzen laguntzen dizugu  
etorkizun hobez  
goza dezazun

Azitin Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108

www.irazabal.net

## ARKITEKTOAK

olatz etxeberria martinez ARKITEKTOA  
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberria

arkitektura, hirigintza eta peritazioak  
eraikin eta obretako kudeaketa teknikoak

Mekola, 7 - behea  
Tel/Fax 943 70 21 12

www.arquitectura-ei.com



## ERAIKINEN MANTENUA

### I.T.E.

INSPECCION  
TECNICA DE  
EDIFICIOS



ERAIKINEN  
IKUSKAPEN  
TEKNIKOA

### E.I.T.

info@ajtoficina.com tlf. 943 80 18 30

AJT zihurtasuna S.L.P.  
Barrena, 6 - behea ezk.

## KRISTALAK



TAILERRA: ERREKATXU, 3an

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com

ERAKUSKETA

eta faxa: 943 203 903

Arikixaneko Zubian

## AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko arotzgia  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea

Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA

EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## ERREFORMAK

### ESTUDIOS ARRILLAGA

PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK

ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-

605 713 168

943 744 019

## GARBIKETAK

### Limpieza Multiservicio Eibar

Superficie  
mota guztietako  
garbiketa eta  
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082

Mobila 688 609 171

www.multiservicioseibar.com Barrena, 21-1.F



## ELEKTRIZITATEA

### egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac  
ego.luz@hotmail.com

677 51 24 62

630 95 73 45

943 20 06 97



Tel: 943-752557  
Faxa: 943-752556  
16 Postakutxatila - Sorluze

Garbiketa eta  
mantenimendua

## PINTURAK

### baglietto

PINTOREAK

Zoru mota guztiak

Pinturak

Dekorazioa

Errebal, 21

Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com



Sostoa, 16 ac behea

Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900

Mobila. 656 784 396

### VICTOR GONZALEZ FRAIZ

PINTURA  
OROKORREAN

BARNE eta KANPOKO

dekorazioa eta pintura,

FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,

ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-

696-565394 / 943-030540

victor-fraiz@hotmail.com

**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkarte.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**EKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,  
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA  
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**  
Maialen Belaustegi  
eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Silbia Hernandez

**BANAKETA-ARDURADUNA:**  
Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.100 ale.

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\* ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# eskutitzak

## – OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali ditezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**LETAIÑAKUA.-** Arraten maiatzaren lehenengo domekan ospatzen den jaia. "Letiañakuan etorriko zara Arraterako".

**LETOI.-** Kobre eta zinkaren arteko aleazioa. Gaztelera "latón". "Letoia da burdin gorrixa eta estaiñua nahastia".

## astean esanak

"Steven Pressfield nobelagileak hau esaten die idazleak izan nahi direnei: inork ez du zure kaka irakurri nahi, ez zure txakurrak ezta zure amak ere, zure blog, twitter edo nobela izan... ez zaie interesatzen. Ez da ankerrak direla, lanpetuta daude. Publizitatean bada 'saltzailearen sindromea': saltzailea, edonor dela, maiteminduta dago bere produktuaz. Eta pentsatzen du beste guztiei ere berdin gertatzen zaiela. Baina zure irakurle izan daitezkeenak euren bizitzako kontuak dituzte buruan eta ez dute astirik zure 'maisulana' irakurtzeko. Zure kaka inork ez duela

irakurri nahi sinesten hasten zarenean, orduan kontzentratzen zara; orduan bakarrik ulertuko duzu idaztea eta irakurtzea transakzioa direla batez ere. Irakurleak bere denbora eta arreta eskaintzen dizkizu, gizaki batek beste bati eskaini diezaiokeen handiena. Baina trukean zuk, idazle, oparitu dizutenaren parekoa eskaini behar duzu, zeozer duina. Zure kaka inork ez duela irakurri nahi jabetzen zarenean, enpatia garatzen duzu eta dohain baliotsuena zureganatzen: perspektiba zure ikuspuntutik irakurlearengana aldatzen duzu. Eta kuestionatzen hasiko zara esaldi bakoitza. Zure kaka orduan hasi daiteke xarma usaina hartzen"

(JUAN AGIRRE, ZUTABEGILEA)

"Emakume autoktonoen abortu tasa %3,9koa da mila biztanleko. Saharaz hegoaldeko afrikar emakumeena 45,6koa, Hego Amerikako emakumeena 26,5koa eta, azkenik, Erdialdeko Amerikatik zein Karibetik datoztena 22,9koa. Harrigarria da ikasketa maila handieneko emakume etorkinen datuak Euskadikoen antzekoagoak ez izatea. Pentsatzen genuen ikasketa mailak neutralizatu egingo zuela etorkin izatearen efektua, baina ez dirudi hori babes faktore bat denik, eta ez du haurdunaldiaren borondatezko etendura arriskua murrizten. Emakume etorkin oso kualifikatuak lan sektore prekarioetan lan egiten dutelako"

(YOLANDA GLEZ.-RABAGO, SOZIOLOGOA)



ASIER EZENARRO

## Gonzalo Puente Ojea: rara avis

Urtarrilean zendu zen Getxon benetako intelektuala: Gonzalo Puente Ojea. Kargu, ohore edo diruaren truke saltzen ez zena. Kuban jaiotakoa, gaztetatik ikusten zen oso aurrera iritsiko zela. 40/50eko hamarkadetan mugimendu katolikoan inguruan ibili zen eta diplomazialaria izateko ikasketak egin zituen, zuzenbidekoekin batera. Denek nahi zuten halako buru argisua bereganatzea. Urte batzuk geroago, baina, Espainiako nazionalkatolizismoaren eraginetik libratu nahi izan zuen eta kristautasunaren historiari buruzko liburuak (Frantzia, Alemanian eta Erresuma Batuan argitaratzen ziren) irakurtzen hasi zen eta baita filosofia marxista ikasten ere. Ikuspuntu guztiz desberdina jaso zuen. 1974. urtean "Ideologia eta Historia. Kristautasunaren eraketa ideologikoa fenomeno ideologiko bezala" idatzi zuen. Liburuak eztabaida handiak sortu zituen eta harrera ona izan zuen kristau aurrerakoen artean. Urte batzuk geroago Gustavo Bueno filosofoarekin eztabaida zorrotza eduki zuen erlijioaren iturburua argitzeko, animismoaren inguruan. Gonzalo Espainiako jainkogabe ospetsuena bihurtu zen eta 1987an, Vatikanon Espainiako enbaxadore zela. Hainbeste urtetan diplomazialari jardun zuenaren ondare intelektuala bere liburuetan eta bere ibilbide garbi eta koherentean dago. Hemen benetako "etendura demokratikoa"ren alde eta Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidearen alde mintzatu zen. III. Errepublikaren aldekoa zen eta estatu laikoa defendatzen zuen. Asko etortzen zen Euskal Herrira, Pilar Lasas bere emazte euskaldunarekin. Behin izan nuen berarekin hitz egiteko aukera, Mutrikun: *rara avis* izan da Espainiako intelektualen artean eta hori eskertu nahi diot.

## Galdeketa egitteko bidian aurrera

Atzo amaittu zan Debabarrenian erabagitzeko eskubidiaren alde Gure Esku Dago-k egin daben siñadura bilketia eta, zenbat siñadura bildu dittuen zehatz esateko azken zenbaketia egittia falta bada be, "ekimenari babesa emoteko bihar ziran 1.500 siñadurak eta gehixago" lortu dira. Gauzak holan, maiatzaren 7xan galdeketa egitteko prozesuak aurrera egingo dabela emon dabe aditzera eta, bide horretan, martxuaren 4 eta 11n egingo dan galderia adosteko "Adosgunia" egingo dala aurreratu dabe.



## Osasun Ikasgela eguaztenian

Poliklinika Gipuzkoaren Osasun Ikasgelak egitasmuaren barruan "Cuerpo y mente: salud y ejercicio" izenburuko hitzaldixa emongo dabe Ernesto Ezpeleta "Bihurri" aizkolarixak eta Gariquito Etxebeste, Txirindularixaren Biomekanika Unidateko fisioterapeutak eguaztenian, 19:30xetan, Portalean. Amaitzian, jendiak bere galderak eta kezak agertzeko aukeria eukiko dau.

OSASUN ikasgelak  aulas de SALUD



asteko  
2.171  
datua

*euro gastau bihar izan dittu udalak zenezplazan hondatutako komunak konpontzeko: 6 hillebetian birritan apurtu dittue eta 2 komun barrixak 1.695 euro kostau dabe, 2.000 eurotik gora BEZ eta iturgiñaren biharra gehitu ezkeru.*

## Eibar KE-ren Euskera Plana aurkeztu zeben

Aurreko astian presentau eben Eibar Kirol Elkartearen Euskera Plana Ipuruan Mikel Larrañaga klubeko Presidenteordiak eta Olatz Olaso, planaz arduratuko dan Emun enpresako zuzendarixak. Iazko azaruan egindako Batzar Nagusixan hartutako konpromisua gogora ekarrirta hasi eban aurkezpena Mikel Larrañagak: "Euskeriaren erabilleria sendotu eta kalera eteratzeko konpromisua hartu genduan orduan eta gaur hori aurkezteko eguna da.

*Egun haundixa da hizkuntza hau maite dogu-nondakoa".*

Larrañagak azaldu eban, "euskeriaren erabilleriaren inguruko diagnostikua sortzia eragin daben barne gogoeta egin dau Klubak. Lehen berbia euskeraz egitteko konpromisua hartu bihar da. Gu geu euskeriaren erabilleran eredu izan bihar gara, bestiak be gauza bera egitteko. Beste erakundiekin batera erabilpena zaintzen badogu, oso positibua izango da".



Olatz Olaso eta Mikel Larrañaga Planaren aurkezpenian.

Olatz Olaso Emun enpresako zuzendarixak klubak hartutako erabagixaren garrantzixa azpimarratu eban: "Batetik, oso garrantzitsua da Eibar bezalako klub batek euskeriaren erabilpen eta normaltasunaren alorrian aurria hartzia; bigarrenik, bide horretan aurrera jarraitze-ko aukera haundixak dittu; eta azkenik, euskeriak eta foballak talde bat osatzen dabe oin eta bixak indartuta urtengo dira".





## Txokolate-jan solidarioa

Gaur arratsaldeko 17:00etatik aurrera txokolate-jana egingo da Untzagako karpan: txokolata eta 3 bizkotxo 2 eurotan hartzeko aukeria eukiko dau nahi dabenak (700/1000 bittartian banatzeko asmua dake) eta batzen daben dirua Isekin, gaixotasun arraruak dittuen umien alkartari laguntzeko izango da. Ekimena Bapobapo.com enpresakuak antolatu dabe, moduren batian Eibar eta Ermuan izandako harrera eskertzeko eta, bide batez, izaera sozialeko alkartari laguntzeko. Eroskik diruz babestutako ekitaldixa izango da.




## Palestinako andren hitzaldixa

Astelehenian, 18:00etatik aurrera "Emakume palestinarren ahotsak" izenburuko hitzaldixa emongo dabe Hiba Nuseiben, Mayson Qawasme eta Ohaila Shomar, andra palestinarren alkartietako ordekarixak. Hitzaldixa Portaleko areto nagusixan izango da eta UNRWA Euskadik antolatu dau, Berdintasun Zerbitzua-Andretxearen laguntasunarekin. Ekitaldixa jende guztiarendako zabalik egingo da.

## Dokumentala eta mahai-ingurua Andretxean

Gaur arratsalderako maitasun erromantikuaren inguruko jardunaldixa antolatu dabe Nalua Eibarko talde feministak: 17:30xetan "Laranja osoak", Nerea Gurrutxagaren dokumentalaren emanaldixarekin hasiko dabe saia eta, jarraixan, mahai-ingurua egitteko asmua dake, "Maitasun erromantikoaren mitoak: nola deseraiki erdi izatetik oso sentitzera pasatzeko" izenburuari jarraituta. Ekitaldixa Andretxean izango da.



## autuan



### TEJERIAREN HITZALDIXA

Eibarko EAJ-PNVren Uri Buru Batzarrak antolauta astelehenian hitzaldixa emongo dau Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko Presidentiaria, 19:00etan Batzokixan. Nahi dabenandako zabalik egingo daben hitzaldixan Eusko Legebiltzarren jardueraz eta egoera politikuaren inguruan egingo dau berba.

### HAUDALAN ETA SARATXAGA

"K2K emocionando" erakundeko Koldo Saratxaga enpresariak euskal industria enpresen eronkei buruzko hitzaldixa eskainiko du martxoaren 2an, 11:00etan, Armeria Eskolan Haudalan lantaldeak antolatutako ekitaldian. Saratxagarekin izango da ere gai hori landu duen Pablo Aretxabala ere. Hitzaldira joateko izena haudalan@gmail.com helbidean eman daiteke.

Lehen jaunartzerako eta ezkontzetan erresak eramateko **JANTZIAK**

ume eta gazte  
**Kopina moda**

f kopinamoda  
 San Agustin, 3  
 943 204181

**ITZULPEN**

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK ITZULTZEN DITUGU, euskaratik gaztelarrera, gaztelerratik euskarara, eta ingelesetik euskarara.**

**ZERBITZUA**  
 elkartea@etakitto.com

## PEIO ORBEA GARATE

– Urtebete joan hintzela –

"Bidea ez dok bukatzen, gure pausoak agortzen dittuk"

Hor segitzen juau, Pello, eta hi beti, beti, gure motxilan...

AKRAPRAK



## Bilduk osoko zuzenketia eta 29 zuzenketa aurkeztu detsaz aurrekontuari

Martitzen goizian emondako prentsaurrekuan, Eibarko EH Bilduko ordezkariak PSE-EEK aurkeztutako udal aurrekontuaren proiektuari osoko zuzenketa eta 29 emendakin partzial aurkeztu detsazela emon dabe aditzera: *“Aurrekontu zirriborruaren baloraziñua egin genduanian azpimarratutakua berresten dogu, aurrekontuaren zirriborrua ez da bape aursarta eta azken urtiotan aurkeztu dabena ren kopixia baiño ez da. Badirudi PSE gaiñontzeko alderdixon proposamenen zain daguala, holan aurrekontua aberasteko. Zirriborrouan badago osagai sozialen bat, baiña hori azken urtiotan EH Bilduk egin dako eta herritarren artian oso harrera ona daken proposameneri esker da”*.

Osoko zuzenketa aurkezteko arrazoia, *“zirriborruak konpondu biharreko akats haundixak dittuala”* uste dabela diñue. Euren berbetan, *“2017ko aurrekontuaren zirriborrua eta 2016ko aurrekontuaren likidaziñua ondo aztertu eta gero, gastu partida askotan berrikuste sakonik egitten ez dabela esan geinke. Partida askotan 2016xan gastautakua islatu orde, 2016ko aurrekontuan aurreikusittakoa proposatu dabe atzera be. Horrekin batera dieta, ziñegotzi eta alderdixetarako partidak murriztia be proposatu dogu, larregizkuak diralako. Dietak 313 eurotik 60 eurora murriztuta bakarrik 130.000 euro aurreztuko lirakez, adibidez”*. Horrekin batera 2.383.000 euroko kostua daken 29



emendakin partzial proposatu dittue: *“Hórrretatik 1.120.000 euro inbersiño barrixak dira. Bestalde, emendakin batzuk inbersiño haundikuak izan barik be, EH Bilduren ezkerreko filosofixia txertatzen lagutzen dabela pentsatzen dogu”*.



## Jeltzaliak ekonomixia eta hirigintza hobetzeko proposamenak gehitu detsaz aurrekontuari

Udal aurrekontuaren harira prentsaurrekua emon eben martitzenian Batzokixan Josu Mendicuti EAJ-PNVko udal taldeko bozeramaillak, Elena Ibañez Hazienda ziñegotzixak, Eduardo Zubiaurre UBB-ko presidentiak eta Eva Juez eta Jaime Lopez de Guereñu ziñegotzixak. PSE-EE alderdixak pasau detsen aurrekontu proposamena aztertu eta gero, *“iazkuaren bidetik, aldaketa barikoa”* dala erizten detsa eta, gaiñera, *“proposamenak jasotzen dabena udalaren finantza-egoeriarekin bat ez datorrela”* diñue. Gauzak holan, batez be hirigintza bizibarrizteko ekimenetan eta ekonomixia suspertzeko neurrixetan ipiñi dabe indarra. Azken arlo horrer lotuta, ekonomixia suspertzeko 4 millioiko inbersiñuak proposatu dittue. Azalduetakua

ren arabera, *“udalak horrer aurre egitteko moduko ahalmena”* dauka, *“zorpetze mailla oso txixkixa dalako”*.

Aurrekontu proposamenari 157 gastu-doiketa (3.860.979 euro), aurreikusi bariko 33 diru-sarrera (1.316.129 euro), 82 inbersiño-proposamen (5.177.108 euro) eta kargu bariko 11 proposamen aurkeztu detsaz. Jeltzaliak aurkeztu dittuen proposamen nagusixak honek lirakez, larburbilduta: ekonomixaren garpena eta enplegua sortzia (597.500 euro), hirixa bizibarriztia (1.008.502 euro), akzesibildadia hobetzia (1.405.306 euro), mugikortasuna eta aparkalekuak (809.000 euro), kultur-inbersiñua (911.500 euro), zerbitzuak (282.000 euro), bestelakuak (134.000 euro) eta basarri-azuetako jaixak (2.300 euro).

## Aurrekontuak errealidadia “makillatzen” dabela diño Irabazik




Equo-k eta Ezker Anitzak osatzen dabena Irabazi-Ganemos Eibar koaliziñuak zalantzatan ipiñi dau PSE-EEK aurkeztutako aurrekontua eta aurtengo udalaren politikak *“goittik behera aldatzia”* eskatzia ez eze, datozen urtitararako *“sormen haundixagua dakan ikuspegi barrixa”* erabiltzia be eskatzen dabe. María Jesus Agirre ziñegotzixak esandakua ren arabera, *“PSE-EE aurkeztu dittuan kontuak herrixan dagan errealidadia makillatzeko baiño ez dabe balixo”*. Pentsatzen dabenez, *“aurrekontuaren ardatz nagusixak enplegua, etxebizitza, subiranotasun energetikua, elikadura, mobilidadia eta biodibersidadia izan bihar litzakez. Eibartarren bizitza baldintzak hobetu eta merketu bideratuta daguzen kontuak diseñatzeko aukeria galtzen ari gara, baita inguru osasuntsuagua eta erakargarriagua sortzekua be”*.

Herrixan daguzen benetako arazuak albo batera laga dittuela be pentsatzen dabe Irabazikuak: *“Ilusiñorik eragiten ez dabena aurrekontuak dira. Aurrekontu honek auzuetan bizi diranak bigarren maillako herritar izatera kondentatzen ditte, ekimen kultural gitxiko herrixa izatera bultzatzen gaitte, enplegurako plan integralik ez daguanaz gaziak kanpora jartera derrigortzen ditte eta ingurumenari ez detsa arretarik ipintzen”*.



TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO

## Bixar itxiko da beherapenen azokia

Eibar Merkataritza Gune Irekiak, Eibarko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin antolatuta, Neguko Aukeren Azokia zabaldu eben atzo Toribio Etxebarria kalia. Gaur 20:00ak arte zabalduko dabe eta bixar, barriz, goizez bakarrik, 11:00etatik 14:00xetara. Guztira 24 establezimenduk dihardue parte hartzen beherapenen azo-



kan, betiko moduan euren produktuak merke-merke eskintzeko: Burbujas y Mas, Calzados Rosa Dominguez, Casamania, Cedry, Doroti, Farmalur, Gratzina, Guby Mutilak, Guby Neskak, Ikusimakusi, KhloeBaby Shop, Kolorete, Kopiña, Leder, Lide, No Comment, Nona, Ttiki, Txukuna, Vieco eta Xare. Horrekin batera, Federopticos Igmar, Oskarbi Oiñetakoak eta Askasibar Intersport dendak be azokarekin bat egin dabe, baiña kalia postua jarri biharrian betiko tokixan, hau da, dendetan egingo dittue eskintza berezixak.

### Euskeria erosketak egitterakuan be

Bestalde, aurreko ediziñuetan bezela, ...eta kitto! Euskara Elkarteak "Euskeraz Primeran!" egitasmuaren barruan prestatutako "Erosketak egiterakoan ere aukeratu euskera!" ekimena jarri dau martxan azoka egunetarako. Euskeriarekin hartzen daben konpromisuaren trukian erosketa-poltsia jasoko dabe mahaira gerturaten direnak. Bixar 11:30xetatik 13:00era egongo dira ...eta kitto!-ko kidiak mahaxan. Gaiñera, parte hartzen dabenen artian Eibar Merkatalgune Irekiaren eskutik 100 euroko erosketa-txartela zozketatuko dabe bixar azokan bertan, 13:00ian.

## 25 taberna III. Gilda Lehiaketan



Herriko 25 tabernak emon dabe izena ...eta kitto! Euskara Elkarteak Euskeraz Primeran! kanpaina-**ren** barruan antolatu daben III. Gilda Lehiaketan. Martxuaren 9xan eta 10ian egingo da lehiaketia eta aurtent be sari bi banatuko dittue antolatzailliak, bata epaimahaixarena (150 euro) eta bestia herrittarrena (150 euro). Herrittarren sarixa erabagitzeko tabernetan jarriko dittuen kutxetan emon ahal izango dabe botua bezeruak. Gaiñera, botua emoten dabenen artian, Kantabria jatetxeko menu berezi bi zozketatuko dira. Epaimahaixa Mireia Alonso, Ruben Etxaniz, Josu Gimenez eta Josu Mugerzak osatuko dabe.



## Saharako umiendako famelixa billa

Aurtengo udan be Oporrak Bakean programia ipiñiko dabe martxan, **Tinduf-eko (Aljeria) errefuxiatu** eremueta-**tik** etorriko diran 7 eta 12 urte bittarteko neska-mutikueri harrera-famelixetan udako bi hillebete pasatzeko aukeria emateko asmuarekin. Horrerri esker, umiak kanpamenduetako bizitza baldintza gogorretatik urrun egon lekie pare bat hillebetian, uztaillian eta abuztuan. Famelixak umiari ostatua, mantenua eta zaintza eskintzeko konpromisua hartzen dabe, baiña biagiaren eta seguruen gastuen arduria Eibar-Sahara Elkarteak eta udalak hartzen dabe. Baiña programiak aurrera egitteko umiak hartzeko prest daguazten famelixak bihar dira eta, horregaittik, jendia animau ezkeru, programako arduradunekin kontaktuan ipintzer-**ra** animau nahi dabe.

## PAGATXA EMAKUME TALDEA

### Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

Pagatxa emakume taldea 1993an sortu zen, gizarte eta kultur alorreko jarduerak antolatzeko asmoarekin. Emakumearen Mahaian parte hartzen dute. 460 bazkide dira gaur egun. Era askotako ikastaroak antolatzen dituzte: ingelesa, eskulanak, euskal dantzak, irakurketa eta idazketa tailerrak, dantza, yoga, arnasketa,...

Emakumeen Historiari buruzko zine forum-ak antolatzen dituzte, eta baita hainbat gairi ere buruzko kafe tertuliak ere sarritan.

Irteera eta bisita kulturalak egiten ditu elkarteak: Mendaroko Sain Gerons txokolate fabrika, Alfa-Arte... Asteburuko bidaiak (Paris, Lisboa, Monako, Oporto, Salamanca, Sevilla...). Egun bateko bidaiak (Biarritz, Donibane Lohizune, Donostia, Bilbo, Gernika, Bakio, Salinas, Gasteiz, Santander...)

### Ekintza nagusiak

- Elkarteko zuzendaritza-taldearen batzarra, hilabete bakoitzeko lehenengo egunean
- Bazkideen urteroko afaria.
- Bilerak orokorra, urtarrilean.

Finantziak: Eibarko Udaleko Berdintasun saila, Kutxa, Emakunde eta bazkideen kuotak

**helbidea:** Zezenbide, 9 - behea  
284 postalutxa

**telefonoa:** 943 700828

**e-maila:** [asociacionpagatxa@yahoo.es](mailto:asociacionpagatxa@yahoo.es)

**harremanetarako:** Dorita Egurrola (943 206735)



Gernikara egindako irteera 2014an.

## ESKOZIA LA BRAVA

### Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

Eskozia La Brava foball-peña edo lagunartea 1997. urtean sortu zen (ofizialki 2001an). *Braveheart* gogoko dute, eta baita Eskoziarekin zerikusia daukan guztia ere, "Eibar K.E.aren filosofiarekin bat datorrelako".

80. hamarkadaren amaieran, peñako beteranoenak "Errugbiko 5 Nazio Txapelketa" ikusteko elkartzen ziren, eta eskoziarrek animatzeko zeukaten grina, kolore biziak eta banderak ikusita, gauza bera egiten hasi ziren. 10 urte inguru pasa zituzten peña ez ofizial bezala Eskoziako banderak Ipuruan eta hemendik kanpo ere erakusten, 2001. urtean ofizialki Eskozia La Brava sortu zen arte.

Eskozia La Bravaren helburua Eibar K.E. jokatzeko duen lekuan babestea eta kirol elkartearen eta herriaren irudi ona leku guztietara eramatea da.

### Ekintza nagusiak

- Eibar K.E. izugarri animatzea etxean jokatzeko duenean.
- Beste taldeetako peñekin anaitzea.
- Eskoziatik datozen jarraitzaileei harrera egitea (Celtic, Kyde, Hibernian...)
- Etxetik kanpo jokatzeko duenean, eurekin bidaiatu eta babesa eskaini.
- Tifo edo pankarta handiak prestatu.

**helbidea:** Ipurua Futbol Zelaia - Gol Este

**twitter:** @EskoziaLaBrava



ESKOZIA LA BRAVAk demaseko babesa ematen dio Eibar foball taldeari Eibarren eta baita hemendik kanpo ere.



Urtero bezala, Aratosteetan bete-betea sartu aurretik bihar irtengo dira koko-dantzak maskarada-festan, Kezka dantza taldearen ekimenez. Aurten hamargarrenez izango dugu koko-dantzeekin goatzeko aukera: lehen agerraldia 08:30ean egingo dute, Merkatu Plazan. Handik Mandiola eta Gorosta auzoetara abiatuko dira, 15:00ak arte koko-dantzak eta koko-eskea baserririk baserri eskaintzera eta arratsaldean, berriz, 19:00etatik aurrera herriko kaleetan, Zuloagarren, Toribio Etxebarria, Untzaga, Calbeton eta Eibarko Bizikleta Plazan ibiliko dira, Mauxitxa txarangak lagunduta koko-dantzak erakusten.



## Koko-marruak hamargarrenez etorriko zaizkigu bisitan bihar

Antolatzaileek diotenez, *“hamarrekoa edo ‘diezmo’ delakoa jasotzea ohikoa izan da eske-errondetan. Hamarrekoa jasoz hamarrekoa osatuko dugu aurten koko-eskean, 2008an abiatu baikenuen eta, beraz, hamargarrenez irtengo dira koko-dantzari eta koko-marruak koko-dantzan eta koko-eskean 2017 urte honetan”*.

Eibarren 100 baserriatik gora daudenez, ezinezkoa litzateke denetara egun bakarrean joatea eta, horregatik, ibilbidea zatika antolatu ohi dute: *“Lau urtetan antolatuta, ziklo olinpikoak behar izaten ditugu baserri berdinerantz itzultzeko. Hirugarren koko-zikloan sartuta, bigarren ibilbidea, Gorosta eta Mandiolako baserriak hartzen dituen izango dugu helburu aurten”*.

Goizeko 08:30ean lehen agerraldia Merkatu Plazan egin eta gero, talde bitan antolatuko dira: talde bat Azitaingo industrialdera abiatuko da, handik Eskaregi, Agirreazpikoa, Azaldegainekoa, Nagiorbe, Boneta, Sagarieta, Azpiri, Mandiolagainenekoa eta Mandiolazpikoa bisitatzera joateko. Bitartean beste taldeak Asua, Gisa-

sola, Ixua, Usartza, Akondia, Berretxina-goikoa, Iturragoikoa, Iturrabehekoa eta Arlaban bisitatuko ditu. Matsaria-Asolabari aldean amaituko dituzte aurten baserrietako bisitak. Iluntzean, berriz, 19:00etan anbulatorioko parkean elkartuko dira kokonpartsa eta koko-festan parte hartu nahi duten guztiak, handik abiatuta Mauxitxa txarangaren doinura erdialdeko kaleetan kalejira ibiltzeko.

### Eguen Zuri

Datorren asteke eguenean, berriz, ikastetxeak eta ikasleak izango dira protagonista: 15:30etatik aurrera ikastetxeen kalejira hasiko dira eta 17:00etan, Urkizutik hasita Untzagaraino kalejira egingo dute, Jainaga eta Narbaizarekin. Eta ordu horretan hasiko da Lisker taldeak girotuko duen dantzaldia, Untzagan. Gainera, 17:00etatik 19:00etara Astixaren eskutik beldurrezko kareta eta makillaje tailerrak egingo dira Untzagan.

Eta Aratoste Barixakurako antolatu diren jarduerak, berriz, 20:00etan hasiko di-

ra, Urkizutik Untzagaraino joango den Kaldereoren kalejirarekin. 20:30etan kaldereoren abestiak eta dantzak egin eta gero, 21:00ak aldera Aratoste pegoia irakurriko da eta gauean, berriz, 23:00etatik aurrera Cover Band PLACTON taldeak kontzertua emango du.

### Taberna eta kalejira lehiaketa

Aratosteak ate joka ditugula eta, udalak lehiaketa bi abiatu ditu. Urtero egiten den moduan, Aratosteetan ondoen apaindutako taberna aukeratzeko lehiaketa egongo da. Aratosteetan lokala apaintzen duen Eibarko edozein tabernarik izango du parte hartzeko aukera.

Horrekin batera, Aratoste Zapatuan koardilen arteko kalejira-lehiaketa egingo da aurten lehenengoz. Parte hartu nahi duten taldeak gutxienez 10 kide izan beharko ditu. Batean zein bestean izena emateko epea otsailaren 23ra arte egongo da zabalik, [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) udalaren webgunean edo Pegoran (bulegora joanda edo 010 / 943708400 telefonoetara deituta).

Otsailaren 1ean Armeria Eskolak antolatzen duen Ondo Egindako Lanaren azken saioko protagonista izan zen eta han bere ibilbide profesionalean lortutakoarengatik errekonozimendua jaso zuen. Datorren egunean berriro izango dugu gure artean, Ikastenek Kontzertu Ekonomikoaren inguruan antolatutako hitzaldia eskaintzeko. Hori aprobetxatuz, Juanjo Alvarez Zuzenbide Pribatuko katedradunarekin izan gara. Besteak beste Europako Kontseiluko aholkularia ere baden zumaiarrak jendearen mesedetan lanean jarduteko gogoia erakutsi dugu, *“batez ere, nire lanarekin gozatzen dudalako”*. 2015eko Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxaren Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Saria jasotakoa da eta betidanik aldarrikatu du euskal unibertsitate sistema bateratua. Eibar Foball Taldean orain dela urte batzuk jokatu zuen defentsak foballari gutxik osatutako curriculuma du eta bere ikerketa jarduera eta dibulgazio lan oparoek, irizpenen ekoizpenak, balio handiko erakundeetan izan duen parte-hartzeak eta kongresuetan parte hartuz egin duen ibilbide aberatsak ez dute baztertzeko bere eguneroko abokatu lana.

## JUANJO ALVAREZ

(legelaria eta Zuzenbide katedratikoa):



# “Katalunian edozer gertatuta ere, horrek ez luke eraginik izan behar gure Kontzertu Ekonomikoan”

– *Aurrekoan Armeria Eskolan izan zinen, Ondo Egindako Lana programaren azken saioan. Zelako zaporea laga zizun?*

Ez da gezurrezko apaltasun kontua, baina etxeko lanak egiteagatik, azken batean gustatzen zaizunean jarduteagatik horrelako eskerrona jasotzea gehiegizkoa deritzot. Ez naiz nire buruaz hitz egitearen zalea, familia artean gozatzea gustatzen zait eta badut nahiko motibazio lanarekin gozatzeko. Nire bizi-ibilbidean ez dago aparteko ezer, baina gustora egon nintzen, lagun giroan, eta uste dut balio izan zigula hausnarke-tarako hondarra lagatzeko.

– *Une honetan non jarri duzu zure aktibitatearen ardatza? Jakinda hain esparru zabalean diharduzula, izango duzu lehenentasunik, ezta?*

Batez ere, ikerkuntzak eta Unibertsitatean klaseak ditut lehenetasun. Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedratikoa naiz EHU-n, Cuatrecasas Bartzelo-

nako abokatu bulegoko aholkularia naiz eta, horrez gain, hainbat publikaziotan kolaboratzen dut. Gure lanen dibulgazioa interesatzen zait, praktikoa izan behar garela uste dudalako, hau da, lurra zapaldu behar dugula.

– *Bergarako UNED-eko hezkuntz-zuzendaria ere izan zinen hamabost urtean, 2010-era arte. Zer eman zizun esperientzia horrek?*

Oraindik ere bertako partaide naiz, fundazioko patroiz moduan. Pertsonalki asko aberastu ninduen kargu horrek, elkarlanean jardun genuelako 80 bat irakasle eta tutorek eta 2.000tik gorra ikasle, mundu berezia osatzen genuen mikrokosmosean. Talde bateko errealtatea bizi izan nuen, gure txikitasunetik abiatuta hainbat proiektu sustatzeko gai izan ginen eta bizi-hel-dutasuna eman zidan. Unibertsitate mundua nahiko indibidualista dela onartuta, kudeaketa horrek besteei zabaltzeko aukera eman zidan.

– *Zure curriculuma gainbegiratu, itsas-zuzenbidearen inguruan hainbat lan kaleratu dituzu. Prestigeren kasua ere gertutik jarraitu zenuen. Ados zaude arazoaren itxierarekin?*

Tesirako ere itsas-zuzenbideko arlo bat aukeratu nuen eta, horretarako, Londresen eta AEB-etan lanean jardun izan nuen. Prestigeren inguruan, han jardun zuen talde juridiko batekin parte hartzeko zortea izan nuen eta hasieratik genekien gaia porrotera bideratuta zegoela. Txarrena da orain istripu bera errepikatuko balitz emaitza berbera emango geniola. Hitzarmenetako nazioarteko sistemak mugatu egiten ditu erantzunkizunak eta, galerak 5.000 milioi eurokoak zirenean, aseguruak ez ziren kopuru horretako ia ezer kubritzera heltzen. Itsasontziaren kapitaina izan zen berari zegoekia ondo bete zuen bakarria eta zigorrik merezi ez zuena, baina bera izan zen zigortutako bakarria. Baina Europar Batasune-

an inork ez du nahi izan horko esentzia aldatzerik. AEB-etan beste modu batean jokatu zuten Exxon Valdez-ek sortutako hondamendiarekin; han bai, arduradunak eragindako kalteak ordaindu behar izan zituen.

– *Ikasbatek antolatutako hitzaldian, bestalde, kontzertu ekonomikoaren inguruan jardungo duzu. Gaia entzunda, eskubidea eta pribilegioa datokizuru burura. Hori Europak onartutakoa izanda.*

Kontzertua gure patrimonioaren altxorra da. Gertatzen dena da horren inguruan pedagogia soziala egitea tokatzen zaigula eta ulertzen ez dutenei ere Estatuarekin onartuta dugun harreman mota dela argitu beharrean gaude. Gainera, ez da gure mesederako sistema bat, batzuk saltzen duten moduan, arrisku sistema bat baino. Kontzertu ekonomikoarekin sortu daitezkeen arazoak guk geuk konpondu beharko ditugu, erantzukide garelako. Estatua ez da



gu salbatzera etorriko. Eta, esanak esan, estatu-komunitateen sistema komunean egonda egokituko zitzaiguna baino gehiagorekin kolaboratzen dugu. Jendeak jakin behar du kontzertuarena eta kupoarena ez badugu ondo kudeatzen, horko porrotetik gu geu irten beharko ginatkeela, inolako laguntzarik gabe. Batzuk eroso daude oso eztabaida manikeoak erabiliz.

**– Kupoarena, dena dela, gel-dirik dago hainbat hamarkadatan. Ez dago hori eguneratze-ko asmorik?**

Hor politika dago, eta horrek ordezkatzen duena. Bost urtetik behin zehaztu beharko zenak aldebikotasuna eskatzen du aldi berean, eta adostasunik ez dagoenez... Orain arte lortu ez dena zaila da kinka larrian gaude-nean lortzea, une delikatuak eta konplexuak bizi baititugu; horrelako gauzetarako sasoi lasaia-gokak behar ditugu, ondo aztertu eta bide egokienak hartzea ahalbidetuko dizkigutenak. Gainera, kopuruak oso garrantzitsuak dira eta aurrekontu alaialdien sasoiak aspaldi joan ziren gure in-gurutik.

Kontzertuaren funtsean akordioa dago eta trantsizioan erabaki zen berori negoziatzea eta baita horko portzentaia zein izango zen. Horrek, analisi teknikoaz gain, analisi politikoa ere eskatzen du, kontzertua negoziatu zuen Pedro Luis Uriartek dioen moduan. Horretarako dago politika, adostasunak lortzeko, jakinda beti ere ez duzula dena irabaziko, baina ezta dena galduko ere.

**– Eta, Katalunia Espainiatik badoa, horrek ez luke eragin zuzena izango kontzertu ekonomikoan?**

Halakoak entzuten badira ere, ez luke zertan. Badakigu Katalunia estatuaren Barne Produkzio Gordinaren %30 dela eta, kataluniarrak joanda, sarrerak gutxiagotu egingo zirela. Horren aurrean, estatuak formula berriak aurkitu beharko lituzke. Aurreikus daiteke gure kontzertua aldatzeko ahaleginak egingo li-

tuzketela, baina horretan gertatu litzateke dena. Ez dago oinarri juridikorik halakorik gertatzeko. Kataluniarrek izan zuten gure kontzertuaren antzerakoa izateko, baina ez zuten nahi izan bere momentuan. Jendeak jakin behar du dirua biltzea ez dela eroso. Edozer gertatuta ere, gure sistema ezin da aldatu. Paktua apurtzeko ahaleginak euskal politikaren zentralitatea erradikalizatuko luke eta, horrez gain, horrelako egoeretan neurtzen da estatu baten kalitate demokratikoa.

munitate historikoekin parekatze ahaleginetan, Andaluziak 151 artikulua hartu zuen komunitate izateko, baina probintzia bakoitzean lortu behar zen aldeko kopurua ez zen eskuratu Almerian eta horrek bestelako komunitateen bidea jarraitzea behartzen zuen, handik bost urtera beste erreferendum bat egin arte. Bada Adolfo Suarezek eta Felipe Gonzalezek legea aldatu zuten eta, herritarrak kontuan izan beharrean, diputatutak kontuan izatea erabaki zuten. Eta Andaluzia atzeko atetik

tasunaren benetako lagapena, eta teklarekin asmatzea. Denbora asko galdu dugu, hori bai, eta jendeak askotan estatu-kolpea gertatu arte ez du erreferentziaz, orduan jotzen du Parlamentura instituzioak defendatzen. Eta badago herritarrak Europa galtzeko arriskurik. Gehiago esango nuke: inflexio-puntua bizi dugu egun, merkatuek ere gehiago integratzea eskatuko digutelako edo, bestela, desintegratzeko. Gure Europa 60 urteko nerabea da, ez aurrera, ez atzera. Denbora dugu oraindik, autarkia bihurtu baino lehen. Munduko bosgarren potentzia den Erresuma Batua badao, bai; ikusiko dugu ondo irtezen asmatzen duen. Pedagogia egin beharra dago eta benetako Europa asmatu.

**– Nahiko autokritiko azaldu zara beti: gure ziborriari begira bizi garela diozu, unibertsi-tate munduan handiuste asko dagoela, kritikatu bai baina proposatu ez dela egiten... Hezkuntzak ez du arlo horretan kale egiten, Pisa txostenaren azken emaitzak alde batera lagata?**

Unibertsitatean lan egiteak aukera bikaina eskaintzen dizu askatasun gotorleku bat den unetik, horko ezagutzak erabilgarritasun elementuekin lotu ditzakezulako. Oraindik gogor-tzen dut izan nuen irakasle baten zioena: hemen tarte baterako zaudete, bizitza da gainditu behar duzuen. Askotan erortzen gara autokonplazentzian, bertan gozo geratuz, eta gure hezkuntz-sistema, ona dela onartuta ere, badu zer hobetze-ko. Askotan gehiegizko sindikalizazioak, gehiegizko administrazioak eta gehiegizko arauketak sistema porrotera bidera dezake, kortse estuegien eraginez. Irakaslea suspertu beharrean, haren lana ez neurtzearen probak banalizatzen iritsi gara, eta horrek ez digu lagundu argazki onena ateratzeko orduan. Ez dugu ahaztu behar, dena dela, hezkuntza dela etorkizuna, eta me-rezi duela hor hobetzea.

## “Europaren alde egiteko badugu tartea oraindik, baina merkatuek ere zirt edo zart egitera behartuko gaituzte”



Juanjo Alvarezek 2015eko Eusko Ikaskuntza Saria jaso zuen..

**– Legalitatea versus legitimitea. Dikotomia horretan, norantza jo behar luke gizarteak? Badago aldatzerik?**

Legalitateak gizarteak joan behar duen erraila markatzen du eta sortutako arauak osatzen dute mekanismoa. Kontinentalaon espirituan dago ezarritako lege-arauak jarraitzea, errail horretan sarreraztea. Anglosaxoiek, ordea, ez dute arazorik mugitzen joateko, sasoiak egokitze ahaleginetan. Kataluniakoak zuzenbideak ezin du konpondu, arazoa politikoa delako. Legea hainbeste aipatu beharrean... lehen ere egin dira legearen kontrakoak, Andaluziako komunitatea osatzeko 1980ko erreferendumaren emaitzak errespetatu ez zituztenean, esaterako. Galizia, Katalunia eta Euskadiko ko-

sartu zen 151. artikulua bit-detik. Legalitatea besterik defenditzen ez dutenek gezurrezko eztabaida planteatzen dute.

**– Betidanik izan zaitugu Europaren proiektuaren aldekoa. Zelan ikusten duzu orain: liderak falta zaizkigu, jendeak interesea galdu du europarra sentitzeko?**

Europako utopian sinesten jarraitzen duen inozo horietako bat naiz. Europari arima falta zaio, baina ez diotelako eman nahi: bertako politikoei euren buruak goratzen dituzte eta gauza ezkor guztiak Europari aurpegiatzen. Hala ere, Europa goraka doa; inon ez dago bertako eskubideen tamainakorik, halako giza-sistema bezalakorik. Lortu behar duguna da estatuaren egoismoa mugatzea, subirano-



## La Salleko ikasle talde boluntarioa

«Ondo irteten bada, ziur hurrengo urteetan jarraipena izango duela»

*La Salle ikastetxeko 3.DBHko Ane Larreategik, Ainhoa Eigurenek, Naroa Murillok, Josu Abalosek eta Martin Balenciagak proiektu handi bat dakarte eskuartean. Martxoaren 12rako, genero berdintasunaren aldeko martxa bat antolatuko dute Eibarren. Berdintasun Sailak, Andretxeak edota herriko emakume elkarte eta emakume independenteek ere ekintza honen prestaketan lagunduko dute. Izena emateko epea martxoaren 3ra arte egongo da zabalik Andretxean*

### – Zer dela eta abiatu duzue horrelako ekimena?

Eskolan ZEIN izeneko egitasmo bat jartzen da martxan. Urte osoko proiektua da eta nolabait talde boluntarioek hartzen dute parte, izan ere, ez da notarako edo ohiko ikasketa planaren barruan sartzen. Aurten eskola solidario bat egin behar genuen. Boluntario talde txiki bakoitzak jorratuko duen gaia aukeratu zuen, kasu honetan guk genero berdintasuna, eta egun bat jarri genuen ekintzaren bat burutzeko edo proiektu bat aurkezteko. Esan beharrekoa da, hasiera batean azaroaren 25a hartu genuela kontuan baina martxa bat egitea otu zitzaigun eta horrek eskatzen duen denbora kontuan hartuta martxoaren 12ra pasatzea erabaki genuen Andretxearekin batera.

### – Zergatik martxa bat?

Gure helburua jendea sentsibilizatzea da eta emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko informazioa zabaltzea, askok ez baitakite zuzen zer gertatzen den errealitatean. Gainera herrian inoiz ez dugu ikusi gai honen inguruko martxa bat eta beraz, ideia ona zela iruditu zitzaigun. Buelta batzuk eman genizkion “lasterketa” kontzeptuari baina gure helburua ez zen konpetizioa, baizik eta batasuna horregatik aukeratu genuen martxa bat egitea.

### – Zer hartu behar da kontuan martxa bat prestatzeko?

Gauza asko, egia esan... Kolaboratzaileak, aseguruak, anbulantziak, ... Bagenekien lan handia zela, baina ez genuen hau guztia imajinatzen. Andre-

txearekin eta mugimenduko emakumeekin elkartu ginenean jabetu ginen egin beharreko guztiaz. Andretxeko dinamizatzaileak Lilatoiko antolatzaileetako batekin hitz egin zuen eta horrek orientatu gaitu guztiok gehienbat. Hala ere dena ondo irtengo dela uste dugu eta parte-hartzaileek ondo pasatuko dutela. Lehengo aldia izanda ondo irteten bada, ziur hurrengo urteetan jarraipena izango duela.

### – Nolako ekintzak egingo dituzte beste taldeek?



Genero berdintasunarekin lotuta, rifak saltzen dabilta batzuk, Eibarko emakume mugimenduari diru hori emateko, beste talde batek jolasak antolatu ditu La Sallen bertan eta gainontzeko taldeek aurkezpenak egingo dituzte ikasgelan.

## FELIX BERGARA ZURUTUZA (apaiza) IV. urteurrena (2013-II-22)

**“Eskerrak eman nahi dizkizugu, Felix, parrokiaren eta auzoaren alde egindako lan guztiagatik”**


*HAREN IDAZKARIA (M<sup>a</sup> CARMEN FERNANDEZ MEMBRIBE), SENIDEAK, JASOKUNDEKO ELIZTARRAK ETA EIBARKO LAGUN GUZTIAK*

**Haren aldeko MEZA ospatuko dugu domekan (hilak 19), Azitaingo Jasokunde Parrokian, goizeko 11.00etan**





## Trikitolari gazteendako maketa lehiaketa



Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak maketa lehiaketa antolatu du lehenengoz. Lehiaketa 25 urtetik beherako musikari edo ikasleei zuzendua dago. Taldean, bakarka edo bikotean trikitixa edo/eta panderoa oinarri hartuta, proposamenak jasotzeko prest egongo dira antolatzaileak. Azaldu dutenez, "10 kantu hoberekin CDa grabatuko dugu estudioan, eta kanturik hobere nari bideoklipa grabatzeko aukera emango diogu". Abestiak bideoz aurkeztu behar dira, ahalik eta kalitate onenean eta taldeko partaide guztiak zuzenean jotzen azaltzen direla. Bideoa trikitixa@trikitixa.eus helbidera bidali behar da, maiatzaren 15a baino lehen. Informazio gehiagorako <http://trikitixa.eus/> helbidean begiratu daiteke.



**Gaztelekuko**

**sukaldariak**

## MARTXA BETEAN

Aurreko barixakuan hasi zen Gaztetxef lehiaketaren laugarren edizioa Indianokua gaztelekuan. Sukaldari gazteak protagonista dituen lehiaketan hiruzpalau neska-mutilek osatutako zazpi taldek jardun zuten nor baino nor. Lehiakideei agindutako proba ez zen bat ere erreza izan, gainera: lehen plater osasuntsua prestatu behar izan zuten, "erosketak 10 euroekin egin eta ordu laurenean dena sukaldatu eta aurkeztuta. Primeran ibili ginen eta, lantaldean jardun eta gero, prestatutako plater guztiak dastatzeari ekin genion epai mahaikideek". Lehiaketaren bigarren saioa asteburu honetan, bihar egingo da eta hirugarren eta azkena, berriz, martxoaren 4an.

## Ilargiaren inguruko jai arrakastatsua

Ederto ibili ziren aurreko zapatuan Eibarko Nalua eta Ermuko Nü Shu gazte feminista taldeek antolatutako Ilargi\_Fest jaialdian. Arratsaldean poteo musikatuarekin ekin zioten egitarauari eta, gaztetxean bapo afaldu eta gero, goizaldera arte dantza egiteko aukera izan zuten Mor More, La Otra eta Mugi Panderoa taldeen kontzertuetan. Bien bitartean, gainera, Lasarteko dantzariak sorgin-dantza egin zuten, gau horretan zegoen ilargi betearen omenez.



Maialen Belaustegi

## M<sup>a</sup> LUISA ZABALETA LAMARAIN

2017ko otsailaren 11n hil zen, 82 urterekin



*"ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN"* · ETXEKOEK

*Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.*





# Etorkizuneko bihargiñendako eskolia



Urteroko moduan, Lanbide Heziketako ikasliak sortutako era guztietako produktu eta zerbitzuak eskintzen egon ziran atzo be: 204 Ikasenpresak hartu eben parte, azokia hartzeko Untzagan eta Txaltxa Zelaixan ipiñi zittuen karpa bixetan banatuta, eta azokia zala eta Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko 1.500 bat gazte ibilli ziran gurian atzera eta aurrera goiz osuan. Gauzak holan, Ikasenpresa Azokiari esker, atzokuan behintzat, ekintzailtzaren hiriburu billakatu zan gure herrixa. Eta hori guztia Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saillaren menpe dagan Lanbide Heziketarako Ikerketa eta Barrikuntza zentrua dan TKNIKAREN ardurapian gauzatu zan antolaketari esker izan zan posible, beti be, Eibarko Udalak eta Eibarko FP Oiñarrizko 2 "ikasenpresen" laguntasun eta alkarlanarekin.

**A**urreko astian presentau eben udaletxian VI. Ikasenpresa Azoka Alberto Albistegi Garapen Ekonomiko eta Enplegu ziñegotzixak, Iñaki Mujika Tknika-ko zuzendari ejekutibuak eta Pilar Diez Ikasenpresa programako dinamizatzailliak. Tenikak koordinatuta, Lanbide Heziketako ikaslien artian kultura ekintzailia bultzatzeko asmuarekin garatzen dan heziketa proiektua da Ikasenpresa eta azokia be

horreri lotuta antolatzen dabe urtian behin. Azaldu ebenari jarraituta, *"azokiari esker ikasleiak ikasturtian zihar landutakua jendiari bertatik bertara erakusteko eta saltzeko aukeria izaten dabe eta, bide batez, ikasturtiari agur esateko ekitaldixa be bada, horren ostian enpresetan praktikak egitten hasiko diralako"*.

Sasoi batian Formaziño Profesionala esatiarekin batera bakarrik taillarraren irudixa

etortzen bajakun be, gaur egunian gauzak asko kanbixau dirala argi laga nahi izan eben aurkezpenian. Iñaki Mujikak prentsaurrekora bildu giñan kazetarixeri zuzenian eskatu zeskunez, *"mesedez, ez erabilli amantal urdiña jantzitta daroian batenbaten argazkirik"*. Eta erre z ulertu leike zergaittik: Lanbide Heziketaren barruan, gaur egunian 23 famelixa profesional dagoz aukeran eta formaziñorako 100 ziklotik gora eskintzen dira, era guztietakuak.

## Oso eskintza zabal eta anitza

Baten batek oindiok zalan-tzarik badaka, atzoko azokan eskindu zittuen produktu eta zerbitzu zerrendiari begiratu baiño ez daka: osagarri anitzak, animalixak, arte grafikuak, artisautzua, relax-osasun artikulua, ikusentzunezkuak, auto-moziñua, bisuteria, oiñeta-



kuak, dekoraziñua, kirola, elektrizidadia, estetika, kosmetika, formakuntza, tatuatzeko erre-minttak, higienea, ostalaritza, iluminaziñua, informatika, jostailluak, egurra, mentenimendua, merchandising, aisialdixa, garatu bariko herrixetan erabiltzeko ur-putzua, birziklaia, hondakiñak, osasun zerbitzuak, ipuin-kontalarixak, erreformak,



200 ikasenpresa baiño gehixago egon ziran euren eskintzarekin.





Alberto Albistegi, Pilar Diez eta Iñaki Mujika Azokaren aurkezpenian.

“Braille” metodora itzulpen-gintza emoteko zerbitzua, elbarrizendako zerbitzuak, ume zein nagusixen zainketa, antzerkixa, souvenirrak, erropak, garbittasuna, turismua, bideo-jokuak...

Antolatzailliak emondako datuen arabera, kurso honetan 600 Ikasenezatik gora sortu ditue EAE-ko 73 Lanbide Heziketa zentrotan eta horretxan inguruan 4.000 bat ikaslek eta 180 irakasle inguruk jardun dabe biharrian.

Programaren arduradunen berbetan, Ikasenez-ari esker hainbat helburu betetzia lortzen dabe: “Ikasliak Ikasenez-ari bat sortzen dabe eta, bide batez, holako ekimenak eragiten daben biharra zelakua dan eta emon bihar diran pausuak zeintzuk diran ikasten dabe, modu erabat praktikuan, gairera. Prozesuan ikasliak euren kompetenziak garatzeko aukeria dake, etorkizunian profesional onak, kontratazeko moduko pertsona ekintzailliak izateko. Eta horrekin batera, autoenplegua biharrerako beste aukera bat gehixago dala ikustarazteko be baliagarria da”.

### Txiletik bisitan

Azokiak seigarren ediziñua bete daben arren, martxan ipiñi ebela 11 urte bete dira eta Lanbide Heziketako sailburuordetzak bere “IV. Formaziño Profesionalerako Euskal Plana 2014-2020” planaren bitartez markatzen daben bidari segitzen detsala azaldu dabe: “Izan be, plan horrek lantzen daben arlo estrategikuetako bat ekintzailletasun aktibua da, eta hori da, hain zuzen be, Ikasenez-arekin egitten diharduguna”.

Ikasliak aukeratzen daben moduluak berak lantzeko es-

kintzen dittuan kompetentzia teknikekin batera, Ikasenez-ari etorkizunian ikasliarendako balixo haundixa izango daben beste batzuk be lantzeko aukeria emoten detsela azpimarratu nahi dabe: “Hasteko, mailla personalian taldian lan egitten eta autonomia eta inplikaziñua zer diran ikasten dabe. Bestiekin alkarlanian jardutian, lantaldian arazueri aurre egitten eta erabagixak hartzen be ikasten dabe. Gestiño guztiak ikasliak egin bihar izaten dittuenez, idatziz zein berba egitten hobeto komunikatzeko trebatzen dira ixa konturau barrik. Eta, jakiña, arlo digitalari lotutako kompetentzieta be trbatzen dira”.

da oin momentuan billatzen daben perfilla”.

Programak dittuan helburuak betetzeko, bestalde, ikasetzien eta irakaslien inplikaziñua eta partehartzia ezinbestekuak dirala pentsatzen dabe: “Ikasenez-arekin bat egittera animatzen diranendako hainbat baliabide eskintzen dittugu: formaziñorako tutorialak, materixalak, erremintak... Hasiaran baliabide gitxi eguazen, baiña urtetik urtera gero eta materixal eta baliabide gehixago dagoz eta, horrerri esker, gero eta irakasle gehixago animatzen doiazela uste dogu, urtetik urtera erreztasun gehixago dago eta”.

Geure inguruan begiratzen



Txiletik etorri ziran atzo Ikasenez-ari Azokia bertatik bertara ikustera.

Hain zuzen be, gaur egunian bihargiñak kontratau bihar dittuenian holakueri begiratzen detsela argi laga eben. Albistegik berak esan eban moduan, “Debegesaren enplegu-mahaixan parte hartzen dot eta han be behin eta barriz esaten dabe danera moldatzen dakixen bihargiñak bihar dirala, inizatibarekin eta beste batzuekin batera, taldian biharrian dakixenak. Hori

hasiz gero, EAE-tik kanpora ez dago programa honen parekorik eta interes haundixa piztu dau gure mugetatik kanpora be: “Udan hainbat irakasle etorriko jakuz Txiletik, programiaren barri euki eta gero interesa piztu eta eurenian martxan zelan ipiñi leikien bertatik bertara ikusi nahi dabelako. Zuzenian ezagutu nahi dabe eta horretara etorriko dirala esan deskue”.

2016-17 ikasturteko datuak
<b>Ikastetxiak</b> 73
<b>Irakasliak</b> 180
<b>Ikasliak</b> 4.000
<b>Ikasenez-ariak</b> 632



● **tartak**  
 ● **enkarguak**  
**etxera**

Bidebarrieta, 28  
 ☎ 943 20 79 73

[www.kolorlan.com](http://www.kolorlan.com) 667 54 89 16



**KOLORLAN**  
 PINTURA LANAK S.L

# moda



# arkitektura

## We should all be feminist

...eta kitto!-n modaren inguruan idazteko proposamena jaso nuenean, argi eta garbi nuen hutsakeria eta itxurakerien gainetik ibiliko nintzela. Mundu guztiak espe-



ro duenetik eta erabat aspertzen nauenetik –denboraldi honetan eramaten dena, norberan armairuan ezinbestekoa dena...– haratago joan nahi nuen. Gai desberdinak lantzeko eta irakurlea modu batean ala bestean erakartzeko konpromisoa hartu nuen. Oraingo honetan pil-pilean dagoen gai bat aukeratu dut: FEMINISMOA. Horren alde nago, zalantzarik gabe.

Bai, gizonezkoa naiz eta feminismoaren alde nago. Zergatik? Emakumeen eskubi-deetan eta euren askatasunean sinisten dudalako. Inork ezin ditu zalantzan jarri. Edozein lekutan nahi dutena eramateko ahalmena eta eskubidea dutelako, euren adina, fisikoa eta kulturaren gainetik.

Bere garaian Coco Chanelek emakumeen alde borrokatu zuen, gizarteak (gizo-

*mikel solas* -MODA DISEINATZAILEA-



nezkoek) inposatzen zituzten kortseetatik askatuz. Mary Quant-ek minigona sortu zuenean mundua guztiz asaldatu zuen. Eta orain Dior-ek altxatu du ahotsa (Maria Grazia Chiuri zuzendaritza kreatiboaren ardura duen lehen emakumearekin); izan ere, bere bildumako kamiseta baten haxe irakur zitekeen:

– *We should all be feminist* –  
(Denok izan beharko genuke feminista)

*olatz etxeberría* -ARKITEKTOA-



Neguan gauden garai honetan adi egon behar dugu etxe barruan daukagun giroarekin. Kanpoan hotza eta barruan epeletan egon nahi dugu baina aukera honek arriskuak dakartzio etxe barruko paretara eta sapaiei, eta zergatik diot nik hau? Etxe barruko giroa beroagoa delako kanpoko baino eta aire horrek hezetasun gehiago eduki dezakeelako. Neguan ere gutxiago aireztatzen ditugu egongelak beroak ihes egin ez dezan.

Nork ez du entzun “Itxi leihoa beroa joan ez dadin” bere amak esandako hitzak. Hezetasun horrek eta aireztapen faltak baporea paretetan islatzeko ahalmena haunditzen du, eta, ondorioz, hezetasunak eta ondoak agertzen dira gure etxeetako paretetan eta sabaietan. Honi guztioni beste akats bat gehitu behar diogu, garbitutako erropak etxe barruan eskegitzeko ohitura. Egia da neguan gaitza izaten dela erropa kalean sikatzea baina etxe barrura sartzen dugunuen ez dugu kontuan izaten osasunean izango duen eragina: Aireztatu gabeko barne giroa oso kaltegarria da osasunarentzat, bertan bakteriak, birusak eta kaltekoak diren beste hainbat elementu

## Neguko akatsak

biltzen baitira. Hau saihestu beharrean gaude, goizero aireztatu, kalefakzioa komenigarria den tenperaturara egokitu eta berriz ere aireztatu eta aireztatu. Jakin beharreko beste trikimailu bat hurrengokoa

da: Onddoak agertu diren paretak urarekin nahastutako lixibarekin garbitzen dira. Jarri hau guztia praktikan eta ikusiko duzuen zelan etxe osasuntsuago bat izango duzuen negu honetan.





## Eibar Rugby Taldeak Durango hartuko du bihar Unben

Ohorezko B mailari eusteko borrokan jarraitzen dute eibartarrek eta neurketa garrantzitsua jokatuko dute bihar Unben, arratsaldeko 16:30ean hasiko den partiduan. Durango eibartarren multzoan urteetako talde ezaguna izango dute aurkari eta une honetan bizkaitarrak Eibarkoak baino hobeto daude sailkapenean; partidu zaila, beraz, etxe koentzat. Avia Eibar Rugby Taldeko emakumezkoen taldeak ere Euskal Ligako partidua izango du asteburuan, ligan izandako hainbat astetako atsedenaldia atzean lagata. Aurreko asteburuan ekin zioten berriro euren multzoko lehiaketari, baina eibartarrei atseden hartzea egokitu zitzaizen. Oraingoan Durango/Zornotza izango dute aurkari, herri bi horietako jokalaririk batzen dituen taldea. Eta 16 urtetik beherako Euskadiko Ligako partiduan, Arrasate Rugby hartuko dute Unben. 18 urtetik beherako taldeak ez du partidurik izango asteburu honetan.



Eibar eta Durangoren arteko neurketa izango da bihar 16:30ean.




## Ipuruako gimnastek indartsu hasi zuten lehen fasea Bergaran

Aurreko zapatuan Arrasaten jokatu zen eskola B mailako faseko lehiaketan Ipuruak alebin mailako hiru talde, infantil mailako bi eta indibidualki parte hartu zuten 10 gimnastekin hartu zuen parte. Eta egun berean jokatu zen benjamin mailako lehen topaketan beste lau talde aurkeztu zituen. Aurreko asteburuan, bestalde, Gipuzkoako txapelketarako sailkatzeko lehen fasea jokatu zen Bergaran eta Ipuruako 19 gimnasta izan ziren parte hartzen, amateur eta eskola A mailatan. Nerea Etxebarriak, Nahia Zenarruzabeitiak, Nahia Gonzalezek eta Arrate Barojak osatutako jubencil A mailako taldeak 11,650eko puntuazioa eskuratu zuen aro bi eta maza pare birekin egindako ariketan, proban nagusitzeko. Maila indibiduallean, Baroja bigarrena izan zen eta June Argüello eta Eider Ojamguren 3. eta 5., hurrenez hurren, jubencil B mailan; bestalde, senior A mailan Lorea Armendariz 4. izan zen. Alebinetan ere ondo baino hobeto lehiatu zuten Ipuruakoek eta kadete B mailan Maria Cruz onena izan zen eta kadete A mailan Nahia Zenarruzabeitia 2. sailkatu zen. Alebin A mailan, bestalde, Elene Ramirez 2. izan zen eta Naroa Alonso laugarren.

## Eibar FT-k zapatu gauean jokatuko ditu hurrengo bi partiduak

Indartsu dabil Mendilibarren taldea azken jardunaldiotan eta puntuak hirunaka irabazten gainera. Astelehenean Granadari 4-0 erraz irabazi zion (Adrian, Enrich, Ramis eta Pedro Leonen golekina) eta une honetan taldea Europarako postuetatik gertuago dago jaitzierakotik baino. Bihar ez du erraza izango puntuak eskuratzea Sevillaren kontra; hurrengo zapatuan Malaga hartuko du Ipuruan eta hor aukera gehiago aurrikusten zaio Mendilibarren taldeari (partidu biak ordu berean jokatuko dira, 20:45ean).



**Radio Eibar**  
 CADENA  
**SER**  
 104,0 FM

**IZADI**  
 LORADENDA  
 - Lora eta landare natural eta lehorrak  
 - Ezkontzetarako lorak  
 San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

**B. Sarasketa, 1 ac 943 12 82 31**  
 Kafea, opilak, ogia,  
 pintxoak, ardoak...  
 Gozatu **EIBARKO**  
**PREZIORIK ONENEKIN!**  
**KAFETEGIA OKINDEGIA**  
**SUTLONDO**  
**LABADEROKUA Egunero 06.00etatik aurrera**



*Ezkurdia eta Merino erabakigarria izan daitekeen partidua jokatuko dute Astelenan.*

## Astelenak binakako txapelketa hartuko du hurrengo bi domeketan

Aspe enpresak jaialdi gutxiago baina pilotazaleentzat interesgarriagoak izan daitezkeenak antolatzeko politika jarri du martxan. Horren ondorioz, ia hilabete eta erdian ez da partidurik jokatu Katedralean. Domeka honetan amaituko da Urte Berri egunetik izandako atsedendaldi hori eta, ez hori bakarrik, hurrengo domekak ere hartuko baititu pilotari profesionalak; kasu bietan, gainera, binakako txapelketaren azken sailkapena erabaki dezaketen partiduekin. Hiru jardunaldi besterik ez dira falta txapelketako lehen fasea amaitzeko eta bost bikote daude garaipe bakar baten tartean. Etzi Ben-

goetxea IV.ak eta Larunbek (6 puntu) osatutako bikoteak Ezkurdiak eta Merino II.ak (5 puntu) osatutakoari egingo dio aurre jaialdiko partidu nagusian, finalerdietara pasatzeko euren arteko lehia gogorrean. Hurrengo domekan, bestalde, partidu nagusiak Iribarria/Rezusta (9 puntu une honetan) eta Victor/Albisu (6 puntu) bikoteen arteko lehia izango du. Etzikoari helduta, jaialdia hasteko Retegi Bi eta Merino bikoteak nor baino nor lehiatuko du Jakak eta Tolosak osatutakoarekin. Azken partiduan, bestalde, Elordi-Erostarbe eta Laso-Iturriaga bikoteen arteko norgehiagoka izango da.

## Goleatzaileek euren dohaiak erakutsi zituzten azken jardunaldian foball-zaletuan

KirolBet Ligako goleatzaile nagusiek erraz aurkitu zuten aurkarien atea torneoko 17. jardunaldian eta, horrela, Azkena Adahiko Kepak hiru gol sartu zituen (bere taldearen hirurak Durangori 3-0 irabazteko). L.P. Machado Tankemansko Yosuk ondo aprobeztatu zuen Slow XOK sailkapeneko azkenaren aurka jokatzeko zutela gol zaparradaren erdia berak egiteko (8-4 izan zen azken emaitza eta lau gol berak sinatu zituen). Yosu da torneoko goleatzaile nagusia une honetan, 24 golekin, eta 17rekin jarraitzen dio Kepak. Euren atzetik daude Bar Txokoko Alvaro (13), Alkidebako Manuel (12) eta Sporting-eko Asier (10). Taldeen sailkapenari dagokionez, Liga aurreko urtetan baino askoz ere erabakigarriago dagoela ematen du: Garajes Garcia ihes eginda dago, 43 puntuarekin, eta bigarren posturako, hor bai, borroka latza sumatzen da. Bar EzDok-ek 31 puntu ditu, Tanke-mansek 30, Durangok eta Esmorgak 29, Azkena Adahik 27 eta Kontentek eta Alkidebak 25.



## Sei garaipen eskuratu ditu Aitor Hernandezek neguan

Neguko denboraldia amaituta, Ermuko txirrindulariak ziklo-krosean sei garaipen eta beste hamabi podium lortu ditu. Horrez gain, Euskal Federazioko Challengea bereganatu du eta iazko udaberrian eta udan jokaturako cross country modalitatean beste sei garaipen lortu zituen. Ez da Aitor Hernandezen denboraldirik onena izan, baina hala ere UCI mailako proba bat irabazi du eta bigarren postua eskuratu du Espainiako Federazioaren ranking-ean.

## Martxorako eski egitasmoak plazaratu ditu Gipuzkoako mendizale Federazioak

Lehen astebururako (4an eta 5ean) "Elur mota guztiak jaisteko tekniken" ikastaroa eskainiko dute Baqueira-Beretean. Elur mota desberdinetan segurtasun handiagoz eta ahalegin txikiagoa eginez



jaisteko eskalatzaileari behar dituen ezagutza teknikoak ematea izango da horko helburua. Plaza mugatuak dira eta prezioak honakoak: federatuak (247 €), ez federatuak (280 €) eta 16 eta 21 urte bitarteko federatuak (87 €). Horrez gain, ikasleek %20ko beherapena izango dute. Hurrengo asteburuan, bestalde, Gipuzkoako Federazioaren XXVIII. Eski Zeharkaldia egingo dute Panticosako bainuetxea ardatz hartuta. Hor izena emateko kuotak honakoak dira: FEDME aterpeetan beherapenak dituzten federatuak (49 €), bestelako federatuak (60 €) eta federatu gabeak (75 €). Informazio gehiagorako, interesatuek 943-461440 telefono zenbakira deitu dezateke edo [www.gmf-fgm.org](http://www.gmf-fgm.org) helbidera jo.



## Motorraren munduko kirolariek denboraldia aurkeztu zuten aurreko zapatuan Portalean

Escuderia Eibarko ordezkari zabalba eta motorraren munduarekin lotutako jende asko izan zuen aurreko zapatu eguerdian Portalean inauguratu zuten "Eibar mundo motor" izeneko erakusketak. Ekitaldia aprobetxatuta, Escuderia Eibarrek taldeko Efen Larena eta Txutxi Perez autogidari bizkaitarren eta Iñaki Narbaiza eibartarraren denboraldiak aurkeztu zituen. Hilabete barru martxan izango dira hirurak: Narbaizak Rallyen Espainiako txapelketan hartuko du parte Peugeot 208arekin eta Larenak, bestalde, Frantzia lehiatuko du, Peugeot Koparen barruan. Aitor Montero motor pilotua, bestalde, saiatuko da Super Sport Espainiako txapelketan azken denboraldian eskuratutako 3. postua hobetzen.

Martxoaren 5era arte Portalean ikusgai egongo den erakusketari dagokionez, Arrateko Igoerako irudiak dira protagonista nagusiak. 1968an jokatu zen lehenengo edizioa eta 2010ean egin zen az-

kena. Ekitaldiak balio izan zuen babesle izan diren eta elkarlanean jardun dutenen laguntza eskertzeko eta, nola ez, igoera berreskuratzeko asmoak ere kaleratu ziren. Erakusketan lehen edizio hartan Sunsundegi irabazleak jasotako saria ikus daiteke eta orduko antolatze lanetan jardun zuen Jose Antonio Laskurainek omenaldia jaso zuen. Arrateko Igoeraren edizio gehien irabazi duen Aitor Zabaleta Bergarako pilotua ere izan zen zapatuko inaugurazioan eta ez ziren falta probarekin eta herriko auto munduarekin lotutako beste hainbat ordezkari, tartean Anton Beroiz, Javi Gisasola, Santos Beorlegi, Josemi Gabilondo, Edu Agirre, Joseba Egaña, Txus Jaio, Gorka Etxeberría eta Rafa Diaz Pulido. Antonio Zanini rallyetan Europako txapeliduna izandakoa ere izan zen Portalean eta aukera aprobetxatu zuten ere gure artetik joandako Alberto Artamendi antolatzailea eta Iñigo Uria pilotoa gogoratzeko.



Motor mundua ondo ordezkátua izan zen Portaleko ekitaldian. Maialen Belaustegi



# EIBAR

## Helbidea

**URKIZU PASEALEKUA, 13**  
**Orbeako dorreak / 1. solairua**  
**☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04**

**CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA**

1) Kardiologia	11) Barne Medikuntza
2) Zirurgia	12) Radiologia
3) Dermatologia	13) Urologia
4) Dietetika / Nutrizioa	14) Traumatologia
5) Análisi Klinikoak	15) Koloproktologia
6) Ortodontzia	16) Erizaintza
7) Otorrinolaringologia	17) Foto-depilazio
8) Pediatria	Unitatea
9) Psikiatria	18) Ginekologia <span style="background-color: green; color: white; padding: 2px;">BERRIA</span>
10) Neurologia	19) Psikologia <span style="background-color: green; color: white; padding: 2px;">BERRIA</span>

**Funeraria Ehorztetxe**  
**Mugica**

EIBAR	ELGOIBAR
<p><b>Beilatokia</b>  <b>Funeuskadi Eibar:</b>                      Otaola, 27</p>	<p><b>Beilatokia:</b>  <b>SIGMA Industrialdea</b>                      (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p> <p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b>  <b>☎ 943 20 19 51</b> <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p>	



**DAVID KARBA**  
(musikaria)

– *Ezagutzen duzu Kvalvika hitzaren esanahia?*

Idearik ere ez!

– *Bada zagan eragin handia izan zuen izen horretako diskoa egiteko.*

Izenak hunkitu egin ninduen eta tokia asko gustatu zitzaidan, baina nire proiektuak Kvalvika izena izango zuela erabakitzeke momentua bidaiako argazkiak ikustean iritsi zen. Europa iparraldeko musika elektronikoan inspiratuta dago diskoa, besteak beste; beraz, 'Kvalvika' izena ondo datorkio. Ez dut berria den ezer egin. Boards of Canada, Vangelis eta Nine Inch Nails bezalako taldeen eragina nabaria da, eta maila musikalean nire herria den Jon Hopkins Islandiako estudio batzuetara joan zen bere disko baterako giroa grabatzera, adibidez.

## “Norvegia eta Islandiara egindako bidaiak gogora ekartzen saiatu naiz”

Norvegiako ipar-mendebaldean kokatzen diren Lofoten uharteetan Kvalvika bezalako altxorak aurki daitezke. Paisaia ederrak eskaintzen ditu hondartza honek eta inspiraziorako toki ezin hobea izan daiteke. Galdetu diezaiotela, bestela, David Karbari. Eibartarrak 'Kvalvika' izeneko diskoa argitaratu berri du, lagun birekin Norvegia eta Islandiara egindako bidaiak gogoratuz. Diskoa martxoan izango dugu eskuetan berandu jota eta, bitartean, hemen dago entzungai: [kvalvika.bandcamp.com/releases](http://kvalvika.bandcamp.com/releases).

– *EP formatuan argitaratu duzu lana. Zergatik?*

Nire nahia diskoa hasieratik amaierara arte entzutea da. EP-a suabe hasten da, gora doa, 4. abestian punturik altuenera iristen da eta gero jaitsi egiten da berriz. Mendia igo eta hondartzara jaitsiko baltz moduan, Kvalvikara iristeko egin genuen bezala. Bidaiak bat gogora ekartzen saiatu naiz. Hegaldiak, zeruertzerara begira geratzen zaren momentuak, bakardako gauak... bidaiak osatzen duten elementu guztiak islatu nahi izan ditut.

– *Azala eta izena zenituen, proiektua gauzatzeko gogoia, baina nolako izan da sortze prozesua?*

Norvegiako bidaiatik bueltatzean gauzak konposatzen hasi nintzen, etxean, baina 2016an hasi nintzen proiektua modu

serioan hartzen. Islandiara bidaiak egin genuen eta ideia batekin joan nintzen hara. Grabagailua hartu eta hainbat soinu grabatu nituen bidaiaren zehar: ur-jauziak, haizea, txoriak, fumarolak... Jasotakoarekin gauza asko egin nezakeela konturatu nintzen, soinu organikoak sartu, eta neukan guztia entzuten jarri nintzen. Ez ninduen konbentzitzen eta, aukeraketa egin ostean, birgrabatu egin nuen. Soinu eta ideietatik abiatuta diskoaren kontzeptua osatu, eta hor hasten da benetan 'Kvalvika'.

– *Diskoa Ez Dok-en aurkeztu zenuen joan den barixakuan, eta orain zer?*

Esperientzia ederra izan zen. Orain hainbat remixen EP-a sortzen dihardut eta etorkizunean 'Kvalvika'-ren kontzeptura egokitutako ikus-entzunezko ikuski-zuna eskaintzea da nire asmoa.

## Txokolate-fabrikara bisita goxoa

Joan zen zapatuan...eta kitto! Euskara Elkarteak Mendaroko Txokolate Fabrikara antolatutako bisita irteeran hogei lagunek eman zuten izena, eta Eibarren trena hartuta abiatu ziren Mendarora zapatu goizean. Han zegoen zain Isaura, bertako beharginetako bat, eta bere azalpeni esker Mendaroko Txokolate Fabrikaren ia 200 urteko historiaren nondik norakoak ezagutu zituzten. Txokolatea dastatzeaz gain, bertako txokolate eta bonboiak erosteko ere aprobetxatu zuten.



## Txirindulariendako musika domekan

Cielito Musika Bandaren eskutik “VIII. Udaberri Kontzertua” hartuko du Coliseo antzokiak domekan, 12:30etatik aurrera. Ohiturari jarraituta, emanaldi honekin ekingo diote denboraldiari herriko txirindulariek. Carlos Sanchez Barbak zuzenduko du emanaldia, honako egitarauari jarraituta: “La Chase” (polka, J. Strauss II), “Pique Dame” (obertura opereta, F. Von Suppe), “Alma de Dios” (zarzuela, J. Serrano), “Independence Day” (soinu banda, D. Arnold), “Rayos y truenos” (polka, J. Strauss II) eta “Txirindularien txirrinak” (polka, C. Sanchez Barba). Eguraldi ona eginez gero, kontzertuaren aurretik, 12:15ean kalejira egingo dute musikariek, Untzagatik abiatuta.





## Biolin eta piano kontzertua gaur Coliseoan

Gaur 20:30ean biolin eta piano kontzertua emango dute Nerea Arriolak eta Esther Barandiaranek Coliseoan. Nerea Arriola Mendieta (Mendaro, 2002) 5 urterekin hasi zen biolina jotzen. 10 urterekin EIO Gazten (Euskadiko Ikasleen Orkestran) sartu zen eta lau urtez izan da bertako kide, gainera azken bi urteetan kontzertino lanak egin ditu. Raffaella Accellarekin ari da ikasten 11 urte zituenetik eta Anna Baget, Nicolas Chumachencho eta Eva Graubin irakasle entzutetsuen eskola magistralak hartu ditu. Estatu mailan zein nazioartean sari garrantzitsuak jaso eta gero OSM Madrilgo Orkestra Sinfonikoan aritzeko hautatu dute, Antzoki Errealarekin elkarlanean talentu musikalen garapena bultzatzeko asmoa duen proiektu batean parte hartzeko. Emanaldirako sarrerak 5 euro balio du.



## "Rockanrollers" dokumentalaren proiektzia etzi Biharriaren-en

Domekan 18:30etik aurrera "Rockanrollers", Juanma Bajo Ulloa zuzendari gasteiztarraren film dokumentalaren proiektzia egingo dute Biharriaren-en (Ubitxa, 16-18 behe). Rockanrollers 2011n hamar urte bete zituen Azkena Rock Festival jaialdiari buruzko dokumentala da: Kiss, Alice Cooper, Cheap Trick eta Gregg Allman moduko ei egindako elkarrizketekin, lanak rockaren inguruko hausnarketara bultzatu nahi ditu ikusleak.



## "Gaizki jartzearen ondorioak" hitzaldia martitzenean

Martitzenean, 19:00etatik aurrera "Gaizki jartzearen ondorioak" hitzaldia emango du Eneko Mallagaraik Kenko osasun gunean (Estaziño, 8). ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako saioa herritar guztiei zabalik egingo da.

## J. Miguel Laskurain, finalurrekoetan

Paraguayko Orkestra Sinfonikoak eta Maestro Navarro Lara Zuzendaritza Eskolak antolatuta, Nazioarteko Orkestra Zuzendaritza Lehiaketan parte hartzen dihardu Jose Miguel Laskurain eibartarrak eta finalurrekoetan dago, beste 9 zuzendariarekin lehian. Tchaikovsky-ren 6. Sinfonia ("Patetica") delakoaren lehen mugimendua Eibarko bi pianojolerekin, Isabel Laspiur eta Iñigo Etxeberriarekin grabatu eta gero, Youtuben ikusgai dago bideoa, jendeak bozkatzeko aukera izan dezan (martxoaren 5era arte). Lehiaketaren azken erabakiaren heren bat publikoaren botoak erabakiko duenez, Laskurainek jende guztia bozkatzera animatu nahi du. Horretarako, [www.concursointernacionaldedirecciondeorquest.a.com/votaciones/](http://www.concursointernacionaldedirecciondeorquest.a.com/votaciones/) edo [https://youtu.be/uL\\_\\_be1M3GE](https://youtu.be/uL__be1M3GE) helbidean sartu.



## UEUren eskaintzarako izen-ematea

2017ko udaberriko eskaintzan izena emateko aukera irekita dago UEUn. 10 ikastaro ikasgeletan eskainiko dira, horietako 5 Eibarren (Markeskua Jauregian). Eta beste 5 ikastaro on-line izango dira. Informazio gehiagorako eta matrikula egiteko [www.ueu.eus](http://www.ueu.eus) helbidean.

## Maria Callas aztergai



Pagatxa emakumeen elkarteak antolatutako Emakumeen Historia egitasmoaren barruan, martitzenean 18:30etik 20:00etara Maria Callas sopranoari buruzko saioa egingo da Portalean, ikastarogelan, Leticia Martinez-Alcocer formatzaileak gidatuta. Interesa duen edozeinek izango du parte hartzeko aukera,



JON MIKEL MUJIKA

## Maitasun artifizialak

"Otsailak 14, San Balentin. Eguneke lehen eguzki izpiak leihotik sartzen diren bitartean, neska gazte bat zimurrik gabeko izaradun ohe handi batean esnatu da.

Ohearen ertzean lore sorta bat dago, oharxto bat dauka lotuta. Neskak oharra irakurri du eta, irribarrean ahoan, leihotik begira jarri da lore sorta bere bularren aurka estutuz. Mutil-laguna bien bitartean, hiriko erdiguneko espaloi batetik harro doa oinez lanera, eskuan kafe poto handi bat hartuta".

Hollywoodeko pelikula artifizial horietako bat bezala saltzen digute San Balentin. Bikote heterosexual perfektuak, koskarik gabeko bizitza perfektuetan, opari perfektuak egiten. Kaka zaharra! Gisa horretako ehunka iragarki ikusi ditugu azken asteotan. Egun seinalatu horretan, gure bikoteari (kontrako generokoa, noski!) detailtxo bat egitea ezinbestekoa zela sinestarazi nahi izan digute. Eta okerrera da lortu dutela. Pasa den asteartean, bat baino gehiagok sentituko zuen desengainatu txiki bat bere bikotearen oparirik jaso ez zuelako. Utikan bihotz formako bonboi kaxa gorriak! Haize garraiolariak entregatutako opariei! Kanpora maitasun mezu prefabrikatuak! Pikutara otsailaren hamalauak! Nik, edozein igandetan, labean ahaztu eta erdi-erretako bizkotxo zati bat eskura jasotzean, munduko mutil maitatuenaren pare sentitzen jarraituko dut.

## Martxan da XX. Eguen Zuri Argazki Lehiaketa



Arrate Kultur Elkartearen eskutik XX. Eguen Zuri Argazki Lehiaketa egingo da. Argazkietarako gaia "Aratosteak" izango da (ez dira nahitaez Eibarko aratoste edo Eguen Zurikoak izan behar) eta argazki onenei saria emango diete: 160 euro lehenari, 100 euro bigarrenari eta 60 euro hirugarrenari.

Parte hartzaile bakoitzak gehienez 4 argazki aurkeztu ahal izango ditu (argazkiak koloretan nahiz zuri beltzean aurkez daitezke), Arrate Kultur Elkartearen lehen solairuko bulegoan edota Kultu tabernan entregatuta. Argazkiak jasotzeko azken eguna martxoak 29, eguaztena izango da (19:00etan). Sariak banatzeko ekitaldia, berriz, apirilaren 12an egingo da, 19:00etan Topalekuan. Egun horretan zabalduko dute apirilaren 21era arte ikusgai izango den erakusketa, lehiaketara aurkeztutako lanekin. Informazio gehiagorako 943 20 22 99 telefono zenbakira deitu (laga mezua erantzungailuan) edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzi dezake.


## Bularretik Mintzora ikertzen San Andresen

San Andres ikastetxean "Bularretik Mintzora" aztertzen ari dira Maialen Arnedo, Idurre Alonso eta Iratxe Retolaza (Mondragon Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea) eta Itziar Zubizarreta (Bularretik Mintzora) ikeritzaileak. Ikastetxetik azaldu digutenez, "urtarrilaren 30ean eta otsailaren 2an ikerketaren grabazio saioak burutu ziren gure ikastetxean. Grabazio hauen bidez, formazio ikertuaren ondorioak aztertzen ari dira eta datozen asteetan grabatutakoa irakasleekin behatu eta beste formazio saio batzuk izango ditugu".



## Sukaldaritza osasuntsua ikasteko klaseak

Nutrizioan masterra duen eta elikaduran "coach-a" den Zaloe Otaduy farmazilariak hilero egiten du sukaldaritza osasuntsuaren inguruko ikastaroa. Hurrengoa otsailaren amaieran eta martxoaren hasieran emango du eta gaia "Afariak" izango da. Azaldutakoaren arabera, "teoria pixka bat ikasi, aste osoko afariak antolatzen ahalegindu eta 5 edo 6 errezeta prestatuko ditugu". 3 orduko ikastaroak izaten dira eta lau talde daude aukeratzeko:



otsailaren 28an (martitzena) edo martxoaren 1ean (eguztzena), egun bietan 13:00etatik 16:00etara edo 18:00etatik 21:00etara. Klaseak Portaleko sukaldarian izango dira eta izena ematen dutenek han jasoko dute beharrezko material guztia (errezetak, apunteak hartzeko...). Izena emateko zuzenean Farmaluz parafarmaziara (Toribio Etxebarria, 18) joan daiteke edo, bestela 604203524 telefono zenbakira deitu. Martxoan gosari eta merienden inguruko ikastaroa eskainiko du.





### Space Jam ELGETAN

Gaur gaueko 22:00etatik aurrera Elgetako 13 Spaloia kafe antzokian kontzertua emango dute Etsaiakeroak eta Sugoi taldeek eta, horrekin batera, "Space Jam" delakoan AC/DC, Bob Marley, The Doors, Rolling Stones, Led Zeppelin, Steve Wonder, James Brown, The Animals... horien eta gehiagoren kantak jo eta abesteko aukera izango dute animatzen diren guzतिक.



### Blues kontzertua ERMUAN

Bihar 20:00etan Ermuko Lobiano Kultur Gunean blues kontzertua emango dute Hendrik Röver & Los miticos GTs taldekoek, Ermuko udalak antolatuta duen emanaldian. Sarrerak 8 euro balio du.



### Fuel Fandango + DJ Chelis AZPEITIAN

Bihar 23:00etatik aurrera Fuel Fandango + DJ Chelis zuzenean entzuteko aukera izango da Azpeitian, San Agustin Kulturguneak antolatuta han emango duten kontzertuan.

### Finlandiari buruzko hitzaldia SORALUZEN

Soraluzeko Mendi Taldeak antolatuta datorren egunean, 19:30ean "Finlandiako itsaso izoztua" izenburukoa eskainiko dute Soraluzeko gaztetxean: Unai Arakistainek Finlandian zehar egindako bidaiari buruz jardungo du berbetan.

## eguraldia (EUSKALMET.NET)



## hildakoak

- Victor Barahona Apodaka. 82 urte. 2017-I-15.
- Ignacio Larrañaga Gallastegi. 77 urte. 2017-II-8.
- Elvira De la Rosa Trigueros. 95 urte. 2017-II-9.
- Olga Arizmendi Arenas. 96 urte. 2017-II-9.
- Manoli Garcia Losada. 83 urte. 2017-II-10.
- Manuel Del Rio Marescot. 95 urte. 2017-II-10.
- Maximina Mendez Nuñez. 96 urte. 2017-II-10.
- M<sup>a</sup> Luisa Zabaleta Lamarain. 82 urte. 2017-II-11.
- Beatriz Amuategi Etxabe. 67 urte. 2017-II-12.
- Jose Botas Santos. 84 urte. 2017-II-12.
- Maria Apellaniz Retana. 101 urte. 2017-II-13.
- Concha Del Amo Calderon. 93 urte. 2017-II-14.
- Bittori Orbea Gallastegi. 83 urte. 2017-II-14.
- M<sup>a</sup> Jesus Martinena Salgado. 79 urte. 2017-II-14.

## jaiotakoak

- Mohammad Khan. 2017-II-7.
- Ibai Varona Lopez. 2017-II-9.
- Jokin Dieguez Errasti. 2017-II-9.
- Mario Alvarez Solana. 2017-II-10.
- Aimar Gayangos Macias. 2017-II-11.

## SUDOKUA

	6	4						1
				1				3
			7			2	6	
					7	1		8
5				3				7
9		8	2					
	9	1			6			
	5			2				
3						5	4	

7	2	9	3	4	6	8	1	5
5	8	3	2	1	7	6	4	9
1	4	6	8	5	9	2	3	7
9	6	5	1	2	8	4	7	3
2	3	4	7	6	5	9	8	1
8	1	7	4	9	3	5	6	2
3	5	2	6	8	1	7	9	4
4	7	8	9	3	2	1	5	6
6	9	1	5	7	4	3	2	8

AURREKOAREN  
EMAITZA

## farmaziak

- Barixakua 17  
 EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)  
 Zapatua 18  
 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)  
 Domeka 19  
 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)  
 Astelehena 20  
 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)  
 Martitzena 21  
 EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)  
 Eguaztena 22  
 EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)  
 Eguena 23  
 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)  
 Barixakua 24  
 EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)

GAUEZ BETI - 2017AN-  
 Mandiola (S. Agustin, 3)

## telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112  
 Pegora .....010  
 Udaletxea .....943 70 84 00  
 Portalea .....943 70 84 39  
 Udaltzaingoa.....943 20 15 25  
 Mankomunitatea.....943 70 07 99  
 Debegesa .....943 82 01 10  
 KIUB .....943 20 38 43  
 Epaitegia .....943 03 34 00  
 Iberdrola.....901 20 20 20  
 Naturgas.....902 12 34 56  
 DYA Larrialdiak.....943 46 46 22  
 Gurutze Gorria.....943 22 22 22  
 Mendaro osp.....943 03 28 00  
 Anbulategia.....943 03 25 00  
 Torrekoa .....943 03 26 50  
 Errepideak.....902 11 20 88  
 Ertzaintza .....943 53 17 00  
 Eusko Tren.....902 54 32 10  
 Pesa.....902 10 12 10  
 Taxiak .....943 20 30 71  
 .....943 20 13 25  
 Alkohol.Anon.....629 14 18 74  
 Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

## Barixakua 17

### TXOKOLATE-JAN SOLIDARIOA

**17:00.** Txokolatea eta hiru bizkotxo 2 eurotan. Dirua Isekin elkar-tearentzat izango da. Untzagako karpan.

### DOKUMENTALA ETA MAHAI-INGURUA

**17:30.** "Laranja osoak", Nerea Gurrutxagarena. Mahai-ingurua: "Maitasun erromantikoaren mitoak". Naluak antolatuta. Andretxean.

### TXAPELKETA

**18:00.** "Air Hockey" txapelketa, Jazinto Olabe ludotekan.

### KONTZERTUA

**20:30.** Biolin eta piano kontzertua (Nerea Arriola eta Esther Barandiaran). 5 euro. Coliseoan.

### KONTZERTUA

**22:30.** Borja Rodriguez bakarlaria. Xania tabernan.

## Zapatua 18

### KOKO-DANTZAK

**08:30.** Lehen agerraldia Merkatu Plazan.  
**09:00/15:00.** Koko-dantzak eta koko-eskea Mandiola eta Gorosta aldeko baserrietan.  
**19:00/21:00.** Anbulatorio paretik abiatuta, koko-dantzak Zuloagatarren, T. Etxebarria, Untzaga, Calbeton eta Eibarko Bizikleta Plazan, Mauxitxa txarangak lagunduta.

### FACTORING

**11:00/14:00.** Neguko Aukeren Azoka.  
**11:30/13:00.** ...eta kitto!-ren Euskaraz Primeran! mahaia eta 100 euroko erosketa-txartelaren zozketa. T. Etxebarrian.

### ASTELENA PARKEA

**11:00/14:00 eta 16:30/20:30.** Astelena Haur Parkea. Astelena frontoian.

### GAZTELEKUA

**17:00.** Gaztetxef lehiaketa. Indianokuan.

### UMEENTZAKO ZINEA

**17:30.** "Mi amigo el gigante". Doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

### KIROLA FAMILIAN

**17:30.** Ipurua kiroldegian.

### KONTZERTUA

**20:00.** Iratxe Mugire bakarlaria. Beleko tabernan.

## Domeka 19

### KONTZERTUA


**12:30.** "VIII. Udaberrri Kontzertua", Cielito Musika Bandaren eskutik. Coliseoan.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30.** Ipurua kiroldegian.

### DOKUMENTALA

**18:30.** "Rockanrollers" (Juanma Bajo Ulloa). Biharrian-en (Ubitxa, 16-18).



## Astlehena 20

### HITZALDIA

**18:00.** "Emakume palestinarren ahotsak". Portalean.

## Martitzena 21

### IKASTEN

**10:00.** "Komikien artean: historia biñetetan" hitzaldia, Mikel Urkidi Diezen eskutik. Armeria Eskolan.

### IKASTEN

**16:00.** Puntu-tailerra.  
**17:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

### EMAKUMEEN HISTORIA

**18:30.** Maria Callas sopranoa. Formatzailea: Leticia Martinez-Alcocer. Portalean (ikastaro gelan).

### HITZALDIA

**19:00.** "Gaizki jartzearen ondorioak", Eneko Mallagaraireren eskutik. Kenko osasun gunean.

### HITZALDIA

**19:00.** "Eusko Legebiltzarraren jarduera eta egoera politikoa", Bakartxo Tejeria, Eusko Legebiltzarreko Presidentearen eskutik. Eibarko EAJ-PNVren Uri Buru Batzarrek antolatuta. Batzokian (Ego Gain 1).

## Eguaztena 22

### IKASTEN

**10:05.** Ibilaldia: Mutriku-Santa Elena-Ondarru. Bazkaria eraman. Autobusa Untzagatik irtengo da.

### GURASOAK MARTXAN

**18:00.** "Competencias emocionales" hitzaldia, gurasoentzat. Hizlaria: Baikara-ko Garbiñe Arrizabalaga. Portalean.

### HITZALDIA

**19:30.** "Cuerpo y mente: salud y ejercicio", Ernesto Ezpeleta "Bihurri" aizkolariaren eta Garikoitz Etxebeste fisioterapeutaren eskutik. Poliklinika Gipuzkoaren Osasun Ikasgelaren barruan. Portalean.

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

## Eguena 23

### IKASTEN

**10:00.** "Kontzertu ekonomikoa" hitzaldia, Juanjo Alvarezren eskutik. Armeria Eskolan.

### EGUEN ZURI

**15:30.** Ikastetxeetako kalejirak.  
**17:00.** Kalejira Jainaga eta Narbaizarekin, Urkizutik Untzagaraino. Ondoren, dantzaldia, Lisker taldearekin. Beldurrezko kareta eta makillaje tailerrak, Astixarekin. Untzagan.

### IKASTEN

**17:45.** Dantzaldia. Untzagako jubilatuek etxean.

### KALERATZEAK STOP

**19:00.** Kaleratzeak Stop plataformako enbilerak irekia. Portalean.

### KALEETAN KANTUZ

**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

### MIKROANTZERKIA

**21:30.** "Novios". Sutondo Labaderokuan (Bitor Sarasketa, 1 ac).

## Erakusketak

### Otsailaren 19ra arte:

– "20 URTE" erakusketa. (Portalean)

### Otsailaren 28ra arte:

– SANTOS TOURIÑOEN argazkiak. (Portalea tabernan)  
 – CARLOS ROMEROREN argazkiak. (El Ambigú-n)

### Martxoaren 5era arte:

– "EIBAR MUNDO MOTOR" erakusketa. (Armaztearen Museoa)



**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**



Zorionak, LIBE, haraiñegun 9 urte egin zenduaz-en-eta! Segi holan, alai! Besarkada bat etxekuen eta, batez be, Alexen partez.



Zorionak, ANE, Garcia Murgoitio, atzo 4 urte bete zenduaz-en-eta. Laztan potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, UXUE! martitzenian bi urte bete zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Maialenen partez.




Zorionak, OSOITZ!!!, bixar zazpi urte beteko dozuz-eta, txapeldun. Musu potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JON, gure etxeko erregiak atzo bi urte bete zittualako. Milla musu potolo famelixa guztiaren partez.




Zorionak, MARKEL, atzo bost urte bete zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Lierren partez.



Zorionak, SUHAR, atzo urtetxua egin zenduan-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MALEN, printzesa, bixar 11 urte beteko dozuz-eta. Milla kilo zorion etxekuen partez.



Zorionak, JON!!!!, astelehenian bost urte egin zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, IRENE, gaur 9 urte bete dozuz-eta. Patxo haundi bat amama, Arrate eta Leireren partez.



Zorionak, kukii!!!, gaur 31 urte egitten dozuz-eta. Espero dot egun zoragarria pasatzia. Asko maite zaitut. JANIREren partez.

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**

**18an: 19:45, 22:30**

**19an: 20:00**

**20an: 20:30**

**"Loving"**

Zuzendaria: Jeff Nichols



**(2 ARETOAN)**

**18an: 17:00, 22:30**

**19an: 17:00, 20:00**

**20an: 20:30**

**"Figuras ocultas"**

Zuzendaria: Theodore Melfi



**(ANTZOKIAN)**

**18an: 17:00(1 aretoa), 19:45, 22:30**

**19an: 17:00(1 aretoa), 20:00**

**20an: 20:30**

**"Manchester frente al mar"**

Zuzendaria: Kenneth Lovrgan



**(ANTZOKIAN)**

**18an: 17:00**

**19an: 17:00**

**"Monster Trucks"**

Zuzendaria: Chris Wedge



**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Txaltxa-Zelai kalean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 6. solairua, igogailuarekin. Terraza eta ganbara. Tel. 665-733954 eta 629-449646.

### 1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 646-778839.  
– 2/3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 652-532589.  
– Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. 3 logelakoa. Tel. 689-571882.  
– Bi laguntzako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Ezinbestekoa igogailu izatea. Tel. 640-378020 eta 634-465136.  
– Eibarko gazte batek pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 665-705978.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Lokala salgai Urkizu dorreetan. 85 m<sup>2</sup>. Prezio interesgarria. Deitu 17:00etatik 20:00etara. Tel. 606-773886.

### 3.2. Errentan

– Garajea alokagai Ego-Gainen. Tel. 685-710962.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Gizona eskaintzen da nagusiak orduka zaintzeko. Baita gauz ere. Tel. 650-513412.  
– Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 695-917617.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 628-765929.  
– Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 602-001567.  
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko. Tel. 680-981704.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 631-418130.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Pres-tasun osoa. Tel. 602-123942.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 622-684289.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-573554.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 692-345215.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 689-798284.  
– Neska euskalduna eskaintzen da pego-rak eta soziedadek garbitzeko. Tel. 617-571210.  
– Eibarko neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 610-096417.  
– Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-841158.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-658703.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-351638.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldari jarduteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 657-773138.  
– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile, garbitzaile eta zaintza lanerako. Tel. 602-394753.  
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 634-388843.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 698-270997.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 661-001246.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 655-310861.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita ospitalean ere. Tel. 659-908513.  
– Mutila eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 631-414397.  
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Erreferentziak. Tel. 600-212516.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-678577.  
– Neska eskaintzen da gauz nagusiak zaintzeko. Tel. 632-733573.  
– Eibarko mutila eskaintzen da garbiketa lanetarako eta metal arloko sektorean lan egiteko. Tel. 630-112222.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 632-139806.  
– Neska eskaintzen da gauz nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-402356.  
– Neska arduratsua eskaintzen da sukaldari moduan eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 602-141712.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-137969.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka eta baita asteburuetan ere. Tel. 609-543957.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna eta baita asteburuetan ere. Tel. 632-218828.  
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Orduka eta baita asteburuetan ere. Tel. 632-552206.  
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko eta dendari jarduteko. Esperientzia. Tel. 632-426847.  
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Esperientzia handia eta gaitasun ziurtagiria. Tel. 616-348918.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-230281.  
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna. Esperientziarekin. Tel. 688-723258.  
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-018667.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 632-691242.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-526228.  
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak eta esperientzia. Tel. 632-026510.

– Neska eskaintzen da goizez umeak edo nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta p egorak garbitzeko. Baita 19:00etatik aurre-ra eta asteburuetan ere. Tel. 612-223075.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 692-314985.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 699-859881.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 666-197835.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 666-197831.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 662-420221.  
– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-882838.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 649-626975.  
– Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko. 5 urteko esperientzia. Tel. 622-321095.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-437852.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gauz ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 652-032117.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 686-561811.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 658-273486.

### 4.2. Langile bila

– Sukalde-laguntzailea behar da Eibarren asteburuetarako. Bidali curriculum-a. 279 posta-kutxatila.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– DBH, Batxilergo, Heziketa Zikloak eta Selektibitateklase partikularrak ematen ditut. Tel. 685-739709.  
– Arkitektura ikasketak ditut eta Batxilergo Teknikoko eta DBH 3. eta 4. mailetakoko klase partikularrak (Matematika, Fisika eta Kimika) emango nituzke. Tel. 679-843282.  
– DBH, Batxilergo eta Unibertsitate mailetakoko matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Masajerako aulkia salgai. Motorrerekin. Egoera onean. Eta baita pandero profesionala ere. Tel. 943-702654 eta 678-856525.  
– Kotxa-kapota, aulkia eta "traveller"-a salgai. Zakuak opari. Tel. 669-293415.  
– Mini-sehaska (Mutsy markakoa) salgai. Baita kotxearendako sillak: 0-1 eta 2-5 urte tarterako (Recaro markakoak). Tel. 669-293415.  
– Biniolozko diskoak, LP-ak eta singleak erosten ditut. Tel. 688-624326.  
– Senar-emaztearendako logela eta bi oheko beste bat salgai. Gutxi erabilitakoak eta merke. Tel. 661-075520.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eus



35 urte<sup>tik</sup>  
góra LTZ ofizial gisa

# Etxe-Lan

www.etxe-lan.com

## ETXETRESNA ELEKTRIKOEN KONPONKETAK

MANTENTZE-LANAK / BERME-LUZAPENAK / ORDEZKO PIEZEN SALMENTA

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

943 79 89 97



## OSTALARITZA

PROIEKTUAK, EKIPAMENDUAK ETA OSTALARITZAKO,  
GARBITEGIETARAKO ETA HOTZ INDUSTRIALERAKO MAKINEN SALMENTA

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA

943 79 12 30

Banataile Ofiziala



FAGOR INDUSTRIAL



## Gipuzkoa 4.0 Fabrikazio Aurreratuko Sarea

Lurraldeko enpresa guztietan kasu arrakastatsuek sortu  
eta partekatzea.

Hori aitzindaria da.

ORAININDUSTRI4.0

Laugarren industria-iraultzarako prest



ORAIN EKONOMIA

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputazioen Foral  
de Gipuzkoa



ORAIN  
GIPUZKOA



# Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



**20.000tik GORA PAZIENTE** ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko  
arreta jaso dezazun



[www.innovadentalclinicas.com](http://www.innovadentalclinicas.com)

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo  
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: [bistaeder@innovadentalclinicas.com](mailto:bistaeder@innovadentalclinicas.com)

[www.innovadentalclinicas.com](http://www.innovadentalclinicas.com)

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5  
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: [innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com](mailto:innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com)

[www.innovadentalclinicas.com](http://www.innovadentalclinicas.com)